

# Elkarteen komunikazioa

HITZ EGITEA EZ DA ELKARRI ADITZEKO MODU BAKARRA



Lita Gómez Terrón / Antonio Moreno

© 2003. Lita Gómez Terrón eta Antonio Moreno  
© 2003-2010. Fundación Esplai  
Argitaratzaileak:

Laguntzaile



ISBN: 978-84-9726-619-9

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA  
Gizarte Gaietako Sailburuordetza  
Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y ASUNTOS SOCIALES  
Viceconsejería de Asuntos Sociales  
Dirección de Servicios Sociales

# AURKIBIDEA



## 1. HASTEKO, OHAR BAT ... 2

## 2. KOMUNIKAZIO EGOKIA: ARRISKUEN BALANTZEA ... 4

- 2.1. Benetan prest gaude komunikazioaren (egokiaren) arriskua onartzeko? ... 5
- 2.2. Kanpo komunikazioari buruz egin ohi diren baieztapen batzuk. ... 6
- 2.3. Kanpo komunikazioaren garrantzia. ... 8

## 3. ELKARTEEN KANPO KOMUNIKAZIOA ... 10

- 3.1. Zer da eta zertarako balio du elkarteetako komunikazioak? ... 11
- 3.2. "7IEN" bidea.
  - 3.2.1. Identifikazioa. Benetan zer egiten dugun jakin, kontaktu ahal izateko. ... 12
  - 3.2.2. Ikerketa. Informazioa lortzen eta antolatzen ikasi. ... 15
  - 3.2.3. Interesa. Zertarako komunikatu nahi digu. ... 18
  - 3.2.4. Hizketakideak. Badakigu zer kontaktu nahi dugun eta zertarako egiten dugun, baina nori kontaktu behar dugu? ... 20
  - 3.2.5. Irudimena. Graziaz kontaktzen ausartu (edo formaltasunez, kasuaren arabera). ... 28
  - 3.2.6. Ideiak. Elkarteetako komunikaziorako baliabideak. ... 37
  - 3.2.7. Internet. Sareen garrantzia, Internetek eskaintzen dituen aukerak eta abar. ... 41


## 4. ZENBAIT ALDERDI ETIKO ... 46

## 5. LABURPENA ... 50

## 6. BIBLIOGRAFIA. LOTURA INTERESGARRIAK. ESKERRAK ... 52



# hasteko, ohar bat



**Hasi baino lehen, ohar bat egin nahi dugu,** zu, koaderno praktikoko honen irakurle hori, ez zaitezen engainuan izan; erabilera jarraibide batzuk emango dizkizugu, hurrengo orrialdeak ito gabe irentsi ditzazun.

Aurreko koadernoetan planteatu dugunez, elkarteetako kideok une oso garrantzitsua bizi dugu: gure hiri eta lurraldeak aldatzen ari dira eta eszenatoki berria eratzen ari da, suspergarria eta erakargarria. Gure sektorearen etorkizuna dago jokoan: gaur egun azaldu zaizkigun baldintza berrietara egokitzeko gai bagara, gure erakundeak eraginkorragoak izan daitezzen barrutik aldatzeko gai bagara, gure elkarteetan partaidetza zuzenaren aldeko, demokrazia osoaren aldeko, apustu garbia egiten badugu, gure ametsak bai erakundeetan bertan zein kanpora transmititzen badakigu, komunikatzen ikasten badugu, baliteke Hirugarren Sektorea, eta zure elkarte sektore horren parte gisa, garaile ateratzea ziurgabetasunez betetako sasoi konplexu honetan.

Koaderno honek planteatzen duen erronka atzeratu ezinezkoa da: edo komunikatu egiten dugu edo itxi egin beharko dugu; edo, bestela, gauzak inertziak egiten jarraitu, eta hori eta ixtea, azken batean, gauza bera da. Ezin dugu denbora gehiagorik galdu, atzerako kontaketa hasi dago, eta beldurrik ez dugun elkarteok ekin behar diogu aldaketari, modernizazioari. Beharizanek eta ahultasunak mahai gainean jartzeko erreparorik ez dutenek, errealitateari konplexutasunetik eta zailtasunak

ezkutatu barik aurre egiten dietenek, hiritarrak, hiriak, demokrazia eta beste mundu bat eratzeko zeregina arduraz onartzen dutenek egingo dute aurrera.

Arriskudun koaderno da hau, galdera eta zalantza asko planteatzen zaizkigulako, eta galdera horien erantzuna denon artean osatu behar dugu. Horrexetarako sortu da koaderno hau, aztertzeko, zalantzan jartzeko, eztabaida sortzeko, galderak egiteko eta galderei erantzunak eman ahal izateko bideak ezartzeko.

Zuk eta zure elkarteak (ordena horretan) jarrera ona baduzue, ziurrenik koaderno hau baliagarria izango zaizue, baina erabilgarria izango da pertsoneri, komunikabideei, hiriari, beste elkartei... irekia egonez. Horrela, bada, zure elkarteak ezaguna izan behar du, hazi egin behar du, eta ez bakarrik kideei dagokienez, ezpada “antolamenduaren kalitateari” dagokionez; ugaritu egin beharko litzateke, helburu gehiago lortu beharko litzuzke, hobetzeko aldatu beharko litzateke.


Ez zaude bakarrik. Dagoeneko hainbat elkarte dago horretan. Saio asko egin dira, batzuetan intuizioz, beste batzuetan gogotaren ondorioz, baina beti izan dute gauza bat amankomunean: irudimena eta errealitatera egokitzea izan daitezela hiritarren ikur berria. Izan ere, aspaldiko erakunde edo elkarte batekoa izan zein elkarte berri batekoa izan, dagoeneko ibilbide luzea egin da, elkarten mugimenduak era guztietako esperientziak

izan ditu, baina beti egon da argi zein den zeregin nagusia: zure moduko jendea, herritarrak, antolatu daitezela beren beharrian eta interesei erantzuna bilatzeko, modu solidarioan, adeitasunez, zuzenean eta parte hartuz.



A stylized illustration featuring a woman in a business suit holding a large speech bubble. The background is orange with a large white question mark and various geometric shapes like circles and a dashed line. The text 'komunikazio egokia: arriskuen balantzea' is written in bold black letters.

# komunikazio egokia: arriskuen balantzea



## 2.1 Benetan prest gaude komunikazioaren (egokiaren) arriskua onartzeko?

**Komunikazioaren alderdi teoriko edo praktikoei –asko hitz egiten da horri buruz- ekin aurretik, begira iezaiozu zeure buruari apur batean.** Hemen zaude, koaderno hau irakurtzen, begirada bat bota eta ea zure elkarterako ezer erabilgarririk lor dezakezun, baina... egin dezagun atzera denboran eta gogoratu... Zer egiten duzu elkarte horretan? Zergatik sartu zinen?... Jakina!, gogogatik, interesagatik, beharrizanagatik, ideologiagatik, balioengatik, jendearengatik... Baina, gogoratu apur bat hobeto... beharbada, zuk, zure keinuek, zure hitzek eta zure isiluneek beste batzuenekin bat egin zutenean, giro berezi hori sortu zenean, konplizitate eta elkar ulertze giro berezi hori sortu zenean, erabaki zenuen bide honi ekitea.

Komunikazio gaien arloan prestakuntza hartzen hasten garenean, emisoreei, hartzaileei eta mezuei buruz hitz egiten hasten gara, ez diegu pertsoneri erreparatzen –irradi aparatuek bagina legez–; edo komunikazio estiloen kontua azaltzen zaigu, asertibitatea dela, entzumen aktiboa dela... baina interesgarriena hau da: azkenean konturatzen gara ezinezkoa dela ez komunikatzea. Beti esaten, kontatzen edo transmititzen dugu zerbait, ahotsaren bidez, isiltasunaren bidez, egiten dugunaren bidez, egiten ez dugunaren bidez, aurrez aurre egonez, ez egonez, bultzadaren bidez edo inertiaren bidez. Eta komunikazioa lortzeko nahian, ahaztu egiten dugu beti komunikatzen dugula zerbait, beti gaudela hor, gure asmoek, sentimenduek, aurreiritziek, beldurrek, gurariak, sexualitateak, rolak, nortasunak, kulturak...

eta garen guztiak besteekiko harremana baldintzatzen duela eta harreman hori betetzen edo hutsaltzen duela, aberastu edo pobretu, aukerak sortuz edo hutsuneak eginez.

Zure elkartearekiko lehen pausoak, edozelan ere, "arriskutsuak" izan ziren, eta, zalantzarik gabe, prozesu arrakastatsua ere. Komunikazioak funtzionatu egin zuen, eta horrexegatik zaude zu gaur hemen koaderno hau esku artean duzula, pentsatzen beharbada nola erabili gauzak hobetzeko.

Izan ere, gauza bat argi dago, komunikazioak "elur bola" erako eragina dauka; badakigu, bola egitean, zerbait martxan jartzen ari garela, baina ez da erraza ondorioak aurreikustea. Gogoan izan zuk "bola hori hartu" zenuela, eta begira orain nolakoa den bola hori; horrexegatik da garrantzitsua gogoeta egitea eta arris-kuen balantzea egitea. Zure ustez, erosoagoa, errazagoa, seguruagoa eta merkeagoa bada zaudeten moduan jarraitzea... aurrera eta zorte on!

Zure elkartearentzat garrantzitsua bada nolako "komunikazio saila" duzuen ebaluatzea, elkarten komunikazioaren arlo honetan ikertzea eta modu berriak ikertzea, gauzak aldatzen ausartzen bazarete, bai eta metodoak hobetzen eta aukerak, pertsonak eta proiektuak batzen ere, etorkizunean izan daitekeenaren beldur ez bazarete, aurrera, hau da zure koadernoal!

## 2.2 Kanpo komunikazioari buruz egin ohi diren baieztapen batzuk



### → "Karteltxoak" ez ditu inork irakurtzen

Sarritan arrazoiz. Informazio asko espazio txikian, ez dira erakar-garriak eta beste askorekin batera agertzen diren lekuetan. Baina horrek ez du esan nahi kartel euskarria egokia ez dela. Informazio jakin bat emateko orduan, kontuan hartu genezakeen aukera bat da, bai gure elkartearen barruan bai kanpoan. Zein karteletan jartzen duzu arreta?

### → Ahoz ahoko informazioak funtzionatzen du ondoen

Egia da formula ona dela gure jarduera eta deialdiei buruzko informazioa emateko. Baina oztopo garrantzitsu bat dago: gure kontroletik kanpo dagoen prozesua da; gainera, erraza da informazioa aldatzea pertsona batetik bestera pasatzean.



### → **Jendea kokoteraino dago paperekin**

Paperaren araberakoa, edukiaren araberakoa eta papera hartzen dutenen interes eta motibazioen araberakoa da hori. Eskuetara heltzen zaizkigun gauza asko bota egiten ditugu, ez dutelako gure beharrianekin zerikusirik, beste barik ez dutelako. Hori gertatzen zaizu koaderno honekin?

### → **"Emailek" gazteentzat baino ez dute balio**

Egia da gazteak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiaetara (IKT) errazago ari direla ohitzen, haiekin batera hazten ari dira eta. Baina, era berean, egia da gero eta pertsona eta erakunde gehiagok erabiltzen dituztela baliabide hauek. Beste barik baztertuko zenuke komunikazio eta informaziorako aukera hau? Beharbada, IKTen arloan trebatzeko beharriana duzu?

### → **"Mailingak" garestiak dira ematen duten emaitzarako**

Bazkideei, beste erakunde batzuei eta abarri informazioa helarazteko modu zuzen eta azkarra da. Beste elkarte batzuek gure jarduerak ezagutzea nahi badugu, unean-unean informazioa jasotzen dutela ziurtatzeko modua da hau. Zertarako bidaltzen dituzu? Badago aldizkakotasunik? Eguneratzen dituzu kontaktuak?

### → **Interesa dutenek jakingo dute edozelan ere**

Bai, eta hala gabiltza. Gure ustez, denbora gehiago daramatenek eta ardura postuak dituztenek besteko interesa eta motibazioa

dauka jendeak. Parte hartzeko informazioa izan behar da. Nortzuk hurbiltzen dira zure elkartera? Nola iritsi zinen zure elkartera? Zure inplikazioa beti berdina izan da ala bilakaera bat egon da?

### → **Orokorrean, informazio lar dago**

Jakina, eta gure kontra egiten du horrek. Estimulu asko jasotzen ditugu: kanean, etxeetan, beharlekuetan, langabezia, gizarte mugimenduetan... Hori dela eta, gure irudimena eta sormena garatu behar ditugu atentzioa emateko. Ze informazio interesatzen zaizu eta zergatik? Ze informazio interesatzen zaio zure komunikazioaren helburu den jendeari eta zergatik?

### → **Berdinak gara beti, zertarako gastatu publizitatean?**

Publizitateak ikusgai jartzen gaitu, agerian; bestela, "klandestinitatean" egongo gara. Gure ahaleginak ezagutua eta onartua izatea merezi du, eta publizitatearen edo hedapenaren bidez identifikatzen gaitu jendeak, horrela hurbiltzen dira gugana. Ez al dugu nahi inor gehiago etortzea gure "txiringitora"? Gure elkarteak gizartearen partaidetza sustatu ala ebitatu egiten du?

### → **Kalitatea berez saltzen da**

Ezinezkoa da "elkarteen kalitate txarra" saltzea. Ez du balio "irudi" oso ona izateak, ez badugu errealitaterik, proiekturik, komunitatearentzako ekintza baliagarririk. Ekintza horiek ageriko-



ak izan daitezen hedapen eta publizitate estrategia egokia behar da. Nortzuek neurtzen dute “kalitatea”?, Zuzendaritza batzordeak, bazkideek, erabiltzaileek... diruz laguntzen gaituen Administrazioak? Aholkularitza enpresa espezializatu batek? Zuk?

→ **Jendea batzeko gaitasuna aperitibo on bat jartzearen menpe dago**

Egia esan, horrek lagundu egiten du. Baina ez gure ekintzetan parte hartzen dutenek erakundeei esker jaten dutelako, ezpada harremanetarako espazio ez formala ere behar delako, lasaia, lagun artekoa, hurbila, gizakioa... eta aperitiboek lagundu egiten dute. Zere egiten duzu lagun, senide edo maite dituzunekin bazten zarenean? Denbora guztian serio, txanda errespetatuta eta moderazioz hitz egiten duzue hurrengo oporrei buruz?

Ezagun egiten zaizkizu baieztapen hauek? Egin al duzu inoiz baieztapen horietako baten gaineko komentariok? Zeintzuekin identifikatzen da zuon elkartea? Argi dagoena da premisa horiek onartzeak ezer ez egitera eta ezkortasunera garamatzala. Gauza horiek planteatzea lehen pauso bat da. Eta hortik abiatuta aurrera egin behar da. Oso garrantzitsua da benetan zer egiten dugun ebaluatzea, denborak aztertzea, komunikazio eta hedapenaz arduratzen direnak ebaluatzea, aldi berean gauza asko egiteko dagoen –benetako- beharrizana, premiazkoa garrantzitsuaren gainetik jartzea, eta Elkartearen Komunikazioarekin zerikusia duten arloetan dugun jokabidea aztertzea.

## 2.3 Kanpo komunikazioaren garrantzia



**Aurreko koaderno batzuetan dagoeneko landu dira komunikazioaren gaineko zenbait ideia**, ekarpenak batez ere barne komunikazioa hobetzeko aukerei buruz izan dira, barrutik, ekipo eta taldeen ikuspegitik.

Argi dago komunikazioaren barneko alderdiak ezinbestekoak direna, baina oso kontuan izan behar dugu kanpo komunikazioak guretzat duen garrantzia: egiten duguna azaltzea, interesatzen zaiguna zabaltzea, gure zerbitzuak “saltzea”, irudi jakin bat ematea, gure elkarteetarako kide gehiago lortzea.

Koaderno honetan elkartearen komunikazioaren kanpoko alderdiak jorratu nahi dira, ondoko eskema kontuan hartuz:





- Zein da nire **ingurua**.
- **Kanpora** kontaktzen dudana
  - **Nola** esaten dudana.
  - **Zer** lortu nahi dudana horrekin.
  - Nori edo nortzuei **esaten diedan**.
  - Nori edo nortzuei **heldzen zaien**.
  - **Zer ulertzen dute** (benetan) kontatu dudanetik.
- Ze **emaitza** lortzen dut nire hitz eta ekintzekin.
- Ze **jokabide** daukan emaitzak entzun, interpretatu eta baloratu ondoren

Zentzu horretan, KOMUNIKAZIOA, lehen esan dugunez, aurre egin beharreko arrisku bilakatzen da. Batzuetan, eroso sentitzen gara gure taldeetan, eta, konturatu barik, ez gara gehiago hazten; beharbada, gauzak “eskuetatik ihes egiteko” beldurra izango dugu. Komunikazioaren ateak zabaltzean gauzak gertatzen hasten dira... horrexegatik da garrantzitsua, arriskua onartuta ere, neutroa ez den komunikazio kontzeptu batean kokatzea, eta bertan...

**K**alean eta inguruan zer daukagun jakiteak lehentasuna izan dezala.

**O**roren gainetik, elkartea ondo antolatzea.

**M**etodo bilaka dadila ideiak lotzea eta ahaleginak batzea.

**U**neoro jakin dezagula besteak entzuten eta onartzen.

**N**ahitaezkoa izan dadila negoziazioa gatazkei irtenbidea emateko.

**I**rudimena eta sormena leihu ireki bilaka daitezela.

**K**apaz izan gaitzela luzetara, zabaletara eta sakonetara hazteko.

**A**ditz baino gehiago izan daitezela jardun, egin, eragin eta eraiki hitzak.


**T**aiuzko erabilera eman diezaiozula informazioari.

**U**nean-unean ditugun baliabideak erabiltzen jakin dezagula.



# 3


**elkarteen  
kanpo  
komunikazioa**



Aurkibidea



### 3.1 Zer da eta zertarako balio du elkarten komunikazioak?



**Honela definitu genezake elkarten kanpo komunikazioa:** “jarduera bat (produktua, zerbitzua, ideia...) sortzeko, jarduera hori egin ahal izateko baliabideak bilatzeko eta beronen zabalkundea egiteko prozesua. Zabalkundea elkartearen eta jardueraren hartzaileen helburuak betetzen lagunduko duten elkar trukeak eragiteko egin behar da. Are gehiago, jardueraren hartzaileak prozesuaren partaide bihurtzea ere izan daiteke helburua”.

Horrela, bada, elkarten kanpo komunikazioak lau alderdi osagarri handirekin dauka zerikusia:

**IDEIA EDO EKINTZA**, produktua edo zerbitzua ere izan daiteke.  
→ **Komunikatu nahi duguna.**

**BALIOA**, ze garrantzi duen gure elkartearentzat eta gure jardueraren hartzaileentzat, zerk pentsarazten digun gure jardueren hartzaileek parte hartu, etorri, entzun edo gure proposamentera hurbildu nahi dutela.  
→ **Zergatik den garrantzitsua ideia edo ekintza hori komunikatzea.**

**BITARTEKOAK**, nola zabalduko dugun ideia, nola iritsiko garen hartzaileengana, ze bide eta sistema erabiliko dugun.  
→ **Nola heldu beste pertsonengana.**

**TRUKEA**, nola ezartzen den hartzaileen eta eskaintzen dugun “produktuaren” arteko harremana, zenbatek eskatu eta erabil-

tzen duten; parte-hartzaile, bezero, hartzaile edo onuradun dira?  
Bat dator nahi genuenarekin?

→ Ze emaitza lortzen dugun.

Elkartearen arabera eta elkartearen egoeraren arabera, alderdi horien garrantzia aldatu egiten den arren, zalantza barik baieztatu dezakeguna hau da: TRUKEA deritzona gertatzen denean, elkarreak baduela ibilbide bat egina. Baliteke –eta sarritan gertatzen da– ideiak oso argi izatea eta kanpora zergatik komunikatu nahi ditugun ere oso argi izatea, baina trukea gertatzen denean, orduantxe konturatzen gara benetan eskaintzen dugunak arrakastarik duen.

Kanpoko atea ireki eta gertatzen dena arretaz entzunez baino ez zara konturatuko. Beharbada, oso garrantzitsutzat hartzen genuena ez zaio inori interesatzen; beharbada, emaitzarik lortzea espero ez genuen arloetan jakin-mina eta curiositatea topatzea. Zerbait eskaintzean, zerbait itzultzen zaigu. Ezer ez dugunean, ez da arraroa jasotako erantzuna isiltasuna izatea.

Komunikazio eredu natural eta erraz baterantz jotzen badugu, eraginkorra eta baliagarria izan liteke ibilbide hau... “7 len bidea” da eman diogun izena, eta, bertan, benetan komunikatu nahi duguna ahalik eta ondoen komunikatzeko baliabide batzuk eskaini gura izan dira.

## 3.2 “7 ien” bidea



### 3.2.1. IDENTIFIKAZIOA

→ Benetan egiten duguna zer den jakin, gero kontatu ahal izateko ]

Bide honetako lehen geldialdiak gure elkartearen barrura garatzea. Zuen produktu, zerbitzu eta jarduerak oso ondo ezagutu behar dituzue, gero zabalkundea egiteko irizpideak ezarri ahal izateko. Ideia bat egiteko, halako zerbait izan liteke: zuen elkartearen aurrean jarri eta elkarrizketa sakon bat egingo bazeniotse bezalako zerbait da. Horrela egongo gara prest hurrengo pausoei ekiteko.

Horretarako, batzuetan ahalegin handia eskatzen duen zerbait behar duzue: pentsatzen gelditu, norbere buruaren diagnosis egin. Oinarrian, azken batean, egin behar dena hau da: une eta aukera egokiak aurkitzea, denek batera, erakundearen egoerari buruzko azterketa egiteko, ahuleziak eta indarguneak identifikatzeko.



Behar-beharrezkoa da ahalik eta lagun gehienek parte hartzea prozesu honetan (ez bakarrik aurretik ibiltzen direnak). Era berean, ahalik eta ikuspuntu gehien ere beharko dituzue, zuen elkar-teko pertsonenak barne, horrela, azterketan ikuspegi desberdi-nak jaso daitezten eta ahalik eta ondoen jasota gera dadin kan-pora ematen dugun irudia. Azkenik, oso garrantzitsua da elkar-tearen komunikazio estrategia akatsak eta desegokitasunak detektatzeko baliabide bihur dadin. Hobetzeko, nahitaez jakin behar da zer aldatu behar den. Aldatzeko, funtsezkoa da jakitea zertan hobetu behar den.

Baina gure elkartearen errealitatea oso konplexua da eta alderdi asko aztertu behar dira; zertan jarriko dugu arreta? Hori egia da, eta ezin dugu kanpoan utzi garrantzitsua izan daitekeen alderdi bat ere ez. Ondoko eskema proposatzen dizuegu, zuon erakun-dearen diagnosia egiteko gida gisa. Geure buruari galdera bat-zuk egingo dizkiogu, eta horien erantzunetan oinarrituta, ea gure elkartearen errealitate eta egoeraren ikuspegi argiagoa lor-tzen dugun.

## GURE ELKARTEAREN AZTERKETA



**1] Zer egiten dugu gure elkartearen jardun leku den lurraldeak dituen beharrizan eta baliabideak zeintzuk diren jakiteko?**

**2] Ze ekintza jartzen dugu martxan gure lanaren helburu den jendearen arazo, eskari, gaitasun eta egoera ezagutzeko?**

**3] Modu argi eta konpartituan definitzen ditugu gure elkartearen eginbehar eta helburuak?**

**4] Nola planifikatu eta ebaluatzen ditugu proiektu eta programak?**

**5] Zeintzuk dira gure elkartearen proiektu, programa, zerbitzu edo produkturik nagusienak?**

**6] Ze ekintza jartzen dugu martxan, behar ditugun baliabideak identifikatu eta lortzeko?**

**7] Zein sistema dugu kide berriak hartu eta haiei harrera egiteko?**

**8] Zeintzuk dira partaidetza motibatzerak eta jendearen arteko kohesioa lortzera bideratutako ekintzak?**



---

**9]** Ze sistema ezarri dugu informazioaren barne difusiorako, mundu guztiari sasoiz hel dakion?

---

**10]** Ze ekintza ezartzen da taldeko kideak programen garapean, komunikazioan, talde lanean, kudeaketan... prestatzeko?

---

**11]** Ezarri da eginkizunak banatu, antolatu eta berrikusteko formularik? Ezarrita badago... zertan datza?

---

**12]** Nola bermatzen da elkarteko arlo eta talde desberdinen arteko koordinazioa?

---

**13]** Nola administratzen ditugu erakundearen baliabideak?

---

**14]** Zein da kanpoan gure helburu eta jardueren berri emateko gaur egun dugun sistema?

---

**15]** Ze ekintza aurreikusi dira gure elkarteak jendearen artean eta gizartean duen irudia bultzatzeko?

---

**16]** Zer egiten dugu erakunde publiko eta pribatuekiko harremanak zaintzeko?

---

---

**17]** Zer egiten dugu beste gizarte-erakunde batzuekin harremanak ezartzeko?

---

**18]** Badugu beste erakunde batzuekin koordinaziorik, lan sarerik edo lankidetzarik? Ze balorazio egiten dugu horiei buruz?

---

Azterketa horren bidez, gure elkartearen egoera ahalik eta zehatzen islatu nahi dugu. Etapa hau ez da jardueren ebaluazioarekin nahastu behar, izan ere, gure proiektuen balorazioa baino gehiago elkartearen antolaketa-arloa aztertzen da hemen. Helburua ikuspegi orokorra lortzea da, osoa eta zehatza.

Lortutako ondorioen bidez, zein alderdi dagoen hobeto eta zein txartoago ikusi ahal izango duzue. Era berean, nahikoa datu izango duzue, denok batera, zer egiten ari zareten eta nola egiten ari zareten jakiteko; horrela, identifikatu egingo zaituzteten baliabide, ekintza eta ezaugarrien lehen zerrenda bat izan ahaliko duzue. Dagoeneko lortu duzue kanpo komunikaziorako estrategia garatu ahal izateko "lehengaia".



### 3.2.2. IKERKETA

→ Informazioa lortzen eta antolatzen ikasi ]

Gure jardueraren hartzaille nagusiengana hurbiltzeko unea da. Argi dago ahalik eta ondoen ezagutu behar duzuela zein inguru eta errealitatean mugitzen zareten, bestela "itsu-itsuka" ibiliko zinatekete. Martxan jarritako ekintzek pertsona jakin batzuk dituzte helburu: auzoak, nagusiak, gazteak, emakumeak, inmi-granteak eta abar. Inguru zehatz batean garatzen dira: ezaugarri bereziak dituen auzune, herri edo probintzia batean. Hori dela eta, ezin diogu bizkarra eman errealitateari, errealitatearen partaide baikara, eta, era berean, errealitate hori sakonago eta zehatzago ezagutzeko formulak ezarri behar ditugu, errakuntzarik gabe jokatu ahal izateko.

Beraz, nahitaezkoa da informazio iturri egokiak izatea, gure ingurua ahal denik eta ondoen ezagutzeko aukera izan dezagun. Besteak beste, honakoak nabarmendu genitzake:

→ **Administrazio publikoak**

Administrazio publikoetako profesional asko egunero-egunero daude harremanetan gure jardueren hartzaille direnekin, eta horrek errealitatea zuzen-zuzenean ezagutzeko aukera ematen die.



Haiengana aurrez aurreko elkarrizketen bidez hel gaitzke, konfiantza eta konplizitate harremanak ezarriz. Baliteke argitalpen batzuek ikerketa interesgarriak jasotzea, baina datu horiek Interneten edo beste formatu elektronikoren batean ere izaten dira, eta errazagoa izaten da informazio hori formatu horietan erabiltzea.

### → Azterlanak eta ikerketak

Kasu hauetan ere zenbait administrazio publikok har dezakete parte, baina arlo honetan, unibertsitate sail berezi batzuek zenbait gizarte arazoren, herritar sektoreren eta abarren gaineko azterlan eta ikerketa zehatzak egiten dituzte.

Kasurik gehienetan, ikerketa horiek unibertsitateetan eta erakunde sustatzaileen egoitzetan aurki ditzakegu. Beraz, zeregin nagusia gure elkartearen helburuekin, lan-arloarekin eta lurraldearekin lotutako departamentuetatik gehien interesatzen zaizkigunekin harremanetan jartzea izango da. Datuok formatu elektronikoa eskura genitzake, baina baita aldian-aldian argitaratzen diren argitalpenetan ere.

### → Gizarte komunikabideak

Zenbait irrati, telebista, aldizkari eta egunkari gure elkartearen ezaugarriekin zerikusia duten informazioak kaleratu eta lantzen dituzte, eta beste informazio iturri batzuetarantz bidera gaitza-

kete. Komunikabide horien bitartez, dagozkigun legeria berrien gaineko informazioa, gure zereginarekin zerikusia duten gaiei buruz emandako iritziak, edo gure jarduerarako garrantzitsuak izan daitezkeen datu estatistiko berriak lor ditzakegu.

Informazio hori lortzeko hainbat bide dago: egunkarietako harpidetzak ("zuzendariari gutunak" atalean begira dezakegu), mintegiak, gizartea atalean dabiltzan kazetarietako egotea edo erreportaje interesgarriak grabatzea. Kasu horietan hainbat formatu daude: papera, irudiak, web orriak, grabazioak eta abar. Kasu askotan, iturri horren abantaila datu eta iritziaren konbinazioan datza, izan ere, abantaila nabarmena da lurralde batean edo herritarren artean dagoen iritzia jakiteko orduan, komunikabideetan emandako tratamendutik abiatuta.

### → Beste elkarte batzuk

Oso garrantzitsua da gure errealitatearen ikuspegia beste talde eta elkarte batzuenarekin alderatzea. Horretarako, garrantzi handia dauka harreman sare ona izateak, bai gure ekintza eremuan bai bigarren mailako erakundeetan (federazioak, koordinakundeak eta abar). Oso baliagarria da jakitea zer pentsatzen duten gure antzeko arloetan jarduten dutenek, irtenbideak proposatzen dituztenek eta gure antzeko informazio beharrianak dituztenek. Kasu honetan, gure elkartearen informazio iturri bilakatzeko da beste batzuentzat.



Nabarmentzekoa da jardunaldietan, biltzarretan, koordinazio bileretan, bisita ez formaletan eta horrelakoetan truke eta komunikazio aukera interesgarriak sortzen direla. Gure elkarteetarikoz batzuek sistematizatu egiten dute errealitatearen gainean duten ikuspegia, eta ikerketa parte-hartzaileko prozesuak ere bultzatzen dituzte; horiekin harreman zuzena izanez, behar dugun informazioa atera dezakegu.

### → Gure jardueren hartzaileak

Eskura dugun informazio iturririk onena eta fidagarriena da. Kasu honetan, beraz, jendeak bere errealitatea hobeto ezagutu dezan partaidetza formulak ezartzea izango da kontua, horrela, gure jardueren hartzaileak nolakoak diren jakiteaz gain, bizi duten egoerari buruz zer pentsatzen duten eta beren beharrian eta interesei erantzuteko zer egingo luketen jakiteko aukera izango dugu. Pertsona horiek helburuen definizioan, ekintzen plangintzan, ekintzen garapenean eta ekintzen ebaluazioan parte hartzen badute, errealitatearen ikuspegi zehatzagoa, biziagoa eta sakonagoa lortuko dugu.

Horretarako, ikerketa parte-hartzaileko prozesuak jar ditzakegu martxan, jendearen ezaugarriekin bat datozen teknikak eta baliabideak erabiliz: bitzita istorioak, esperientzien sistematizazioa, elkarbizitza jarduerak, ikus-entzunezko erreportajeak eta bururatzen zaizkigun beste batzuk.

Errealitatera hurbiltzeko eta errealitatea aztertzeko, hona hemen interesgarriak izan litezkeen zenbait jarraibide:

- **Informazioa aukeratzea:** bereizi egin behar da behar-beharrezkoa dena beharrezkoa ez denetik, garrantzitsua dena osagarria denetik, nagusia dena albokotik. Harira joan behar dugu, bestela ito egin gaitezke, orrialdeetan, egunkari zatietan, grabazioetan... eskua nondik sartu jakin barik. Eta galbahe horretatik pasatzeko, irizpideek gure eginbeharrarekin, gure ekintzekin eta gure elkartearen nortasunarekin oso lotuta egon beharko dute.
- **Informazio iturriak konbinatzea:** geure ikuspegia eratzeko modurik egokiena da, errealitatearen gaineko ikuspegi egokia izateko, izan ere, datuak, interpretazioak eta interpretatu egiten dituzten eragileak konbinatzen ditugu.
- **Aldizkakotasuna eta eguneratzea:** nahitaez eguneratu behar dira gure jardueren hartzaileengandik jasotako datu eta ondorioak. Errealitatea aldatzen da eta, sarritan, oso-oso azkar aldatzen da. Ez bagara egunean jartzen, errealitatearekin bat ez datozen premisen gainean lan egiteko arriskua daukagu.
- **Informazioaren tratamendua:** lortutako informazioa "itzuli" egin behar da, hau da, datuak, interpretazioa, iritziak eta abar



moldatau egin behar dira, horrela, irudiak, txostenak eta informazioak gure elkarteko ahalik eta kide gehienen eskura jartze-ko modu errazean.

Helburua da gure jardueren hartzaile nagusien eta gure jardun eremuaren erradiografia argia lortzea, hortik abiatuta gure estra-tegia garatzeko.

### 3.2.3. INTERESA

→ Zertarako komunikatu nahi dugu ]

Denok dugu interes bat, adostua, eta pertsona batzuk gure elkartera edo gure jarduera, ideia, produktu edo zerbitzuetara hurbiltzeko beharizanarekin zerikusia dauka interes horrek. Hori da gure interesa.

Orokorrean, pentsatu ohi dugu niretzat ona dena, besteentzat ere ona dela, sarritan jakintzat ematen dugu jendeak duen inte-resa... eta ahaztu egiten dugu "jende horrek":

- sarritan ez gaituela ezagutzen,
- sarritan "mesfidati" jokatzeko duela gizarte ekimenak direla-eta
- beharbada ez duela esperientziarik elkartean inguruan
- beharbada ez dakiela oso ondo zer diogun

- beharbada ez dituela bizi izan elkarteetan aritzeak harremane-tarako eta norberarentzat dakartzan onurak
- beharbada ez duela nahi guk proposatzen dugun eran lan egin

Laburbilduz:

- **Batzuetan "motorra saldu" nahi diogu "motorra" nahi ez duenari, baina beharbada bizikleta edo motorraren eskulekua (hasteko behintzat) erosiko lukeenari. Ez dezagun ahaztu ideia "motorra saltzea" dela.**
- **Beste batzuetan ahaztu egiten dugu gure jarduera parte-hartzaileetan -benetan parte-hartzaile badira- kontuan izan behar direla trukea, harremanak eta errealitatearen benetako ezagutza ahalbidetuko duten modu eta formulak.**

Azken batean, jendea, nahiz eta gure elkartekoa ez izan, ez da hor kanpoan dagoen zerbait; gure elkartearen jendea bizi den mundu horren "barruan" dago. Geuk egin behar dugu lengoia komuna topatzeko ahalegina (interesatzen zaigulako), gauzak erraz jartzeko ahalegina, beste pertsonen interesak zeintzuk diren jakiteko ahalegina, gure interesak haien interesetara hurbiltzeko ahalegina. Pentsatu une batez zein garrantzitsua den zuretzat zure lanaren helburu diren ideiak transmititzea, zure auzokideak hainbesteko ilusioz antolatu zenuen ekitaldira hurbiltzea, ametsetako proiektu hori aurrera ateratzeko gero eta jende gehiagok parte hartzea.



Dena dela, zalantzarik gabe, abiatzeko motorra zeu zara, zeure ilusio, gogo, energia eta ideiekin batera, eta zure elkartekoekin batera... gogoan izan orain duzun hori apurka-apurka egin duzuela. Guztion arteko zeregin hartatik ilusio eta proiektu berriak sortu ziren, arrakasta eta porrotetatik gauzak hobeto egi-ten ikasi zenuen... ez pentsa zure interesari eta zure elkartearen interesari berehala erantzungo zaiola beti.

Beharbada bi alderdi hauek har ditzakegu kontuan interesaren arlo hau hobeto erabiltzeko:

- **Gure hizketakideei zer interesatzen zaien ulertu eta gure interesekin erkatu.** "Interes komun" horiek hartu abiapuntu gisa eta partaidetza mekanismoak erabili aztertzeko. Azterketa edo ikerketan oinarritu interesak ulertzeko.
- **Kontuan izan zertarako komunikatu nahi dugun.** Zein da gure komunikazioaren helburua. Jakina, badakigu denok batera kantatzen... baina besteek gu entzutea nahi badugu, aldezturik jakin egin behar dugu ze kantu kantatu, bestela... gure jarduna zarata huts bilaka daiteke.

Argi badaukagu zer eta zertarako komunikatu, ziurrenik errazagoa izango da. Ez da gauza bera sentsibilizazio kanpaina eta diru-batze kanpaina, ezin dugu "kantu bera" erabili gure jardueren berri emateko eta boluntario gehiago lortzeko.



Kasu bakoitzean estrategiak eta metodoak desberdinak izango dira. Baliabide asko (eta irudimen asko) izatea oso garrantzitsua da, baina ezin dugu alde batera utzi gure alde praktikoa eta baliabide horiek ezin ditugu ez alperrik erabili ez txarto erabili.

### 3.2.4. HIZKETAKIDEAK

→ **Badakigu zer kontatu nahi dugun eta zertarako egiten dugun, baina nori kontatu behar diogu? ]**

Orain, gure mezuen hartzaileak, hau da, gure hizketakideak hobeto ezagutzen ahaleginguduko gara. Horientzat dira gure proposamenak eta horiekin lortu nahi dugu aurreko orrialdeetan truke gisa definitu dugun hori. Hobeto ulertzeko asmoz, lau tipologia ezarri ditugu, erakundeen oinarrizko hizketakideekin bat datozenak: sustatzaileak, hartzaileak, laguntzaileak, legitimaten dutenak eta zabalkundea egiten dutenak:

#### • SUSTATZAILEAK

Gure elkarteko boluntarioak, lan taldeak, aktibistak, gure elkarrearen jarduerak bultzatu eta egiten dituzten laguntzaileak.

Partaidetzarako beharizan eta oinarrizko baldintzei emango diegu garrantzia, talde lana ahalbidetzeko behar diren elementuei eta horien artean, jakina, informazioari. Hori dela eta, behar-

beharrezkoa da aktibista bakoitzaren egoeraren gaineko ezagutza ahalik eta zehatzena izateko formulak erabiltzea.

Horretarako, oso erabilgarriak izan daitezke iragarki oholak, koordinazio batzarrak, iradokizunen postontziak, aurrez aurreko elkarrizketak eta abar. Kontua da oso ondo definituta izatea gure elkarrearen barruan egin behar bakoitza garatzeko behar den informazioa, tratamendu zehatza ezarri ahal izateko.

**Komunikazioan, gure oinarrizko helburua partaidetza da.**

Horretarako, sustatzaileen arteko truke eta harremanak etenik gabekoa izan behar du, arina, eta emititu barik biderkatu egiten duen gunea izan behar du.

Kontuan hartzeko zenbait **gako**:

- **Gure elkarteko jendeari ez diogu ideiarik saltzen**, denok batera eratzen ditugu.  
→ *Horrela, bada:* **jendea partaide gisa tratatuko dugu, ez bezero gisa.**
- **Ezinbestekoa da giza harremana**, ez da beste osagai bat: mezu elektronikoak eta gutunak bidal genitzake, baina formula horiek hitzaren, entzutearen eta giza harremanaren osagarri baino ez dira izango.  
→ *Horrela, bada:* **erabil ditzagun espazioak eta momentuak aurrez aurreko kontakturako.**



- **Denok onartutako espazio iraunkorra egon behar da:** iragarki-ohola, web orria, biltzarrak... bertan, mundu guztiak bere ideiak eman ditzan eta bere jarduerak aurrera ateratzeko oinarritzko informazioa jaso dezan.  
→ *Beraz: aurki dezagun formularik onena gure erakundearentzat, eskatu diezaiogun iritzia jendeari.*
- Kideez ari gara, eta horrek esan nahi du gure elkartearen barruan komunikazioaren **ebaluazio eta jarraipenean** parte hartu behar duten pertsonak direla.  
→ *Horrela, bada, argi gera bedi noiz eta nola ebaluatzen dugun komunikazioa gure erakundearen.*
- **Talde lanaren aldeko apustu garbia.** Horretarako, aurrez aurreko harremanetarako, harreman ez formaletarako, une eta espazioak bilatu behar ditugu, afektibitatea izan dadin, jendearekin bat egiteko aukera izan dezagun.  
→ *Beraz: ikus dezagun zeintzuk diren ondo pasatzeko formularik onenak (jaiak, egun jakin batzuk, jarduerak eta abar).*
- **Pertsonen arteko komunikazio ona ez da bat-bateko kontua,** ez da "naturala", entrenatu egiten da. Komunikaziorako garrantuko dugun gaitasuna gure elkarreetan arlo horretan prestatzeko dauden aukeren arabera izango da. Aztertu, ebaluatu, gure puntu ahulak zeintzuk diren jakin eta horiei aurre egiteko neurriak ezarri behar ditugu. Pertsonen arteko komunikazioa oso garrantzitsua da; horretan datza gure elkartearen proiektua.

→ *Beraz: diseinatu dezagun nola ikasiko dugun hobeto komunikatzen (ikastaroak, barne ebaluazioak eta abar).*

## • HARTZAILEAK

Gure jardueren hartzaileez ari gara, gure jardunari eta egiten dugunari esanahia ematen dioten horiez; haiengan jarri dugu gure konfiantza: ezin diegu hutsik egin. Hona hemen truke eta harreman estiloak markatzen dituzten hiru oinarritzko une: jardueraren aurretik, jardueran zehar eta jardueraren ondoren.

*Jardueraren aurretik:* beharizanak eta aukerak ahal denik eta ondoen ezagutzen ahaleginduko gara, izan ere, **gure helburua erabilgarriak izango diren ekimenak eratzea da.** Elkarrizketak, batzarrak, inkestak eta abar egiten ditugu, ahalik eta pertsona gehienek parte hartu dezaten arazoaren definizioan eta arazo horiek izan dezaketzen konponbidean. Horrela, gure jardueren hartzaileentzat ezagun izan daitezkeen testuak, irudiak eta estimuluak aukeratzen ditugu.

*Jardueran zehar:* jakin egin behar dugu zer pentsatzen duten parte hartzen ari diren proiektu edo ekintzari buruz, horrela, hobetu ahal izateko, norabidez aldatzeko edo norabideari eusteko. Kasu honetan, aurrez aurreko etengabeko harremanaz gain, bateratze saioak, balorazio batzarrak, ebaluaziorako horma-irudiak eta abar egin behar dira.



*Jardueraren ondoren:* parte-hartzaileekin harreman leiala izan behar dugu. Horretarako, emaitzen gainean lan egiten dugu, emaitza horiek hasieran genituen itxaropenekin eta gure proiektu eta jardueren balioarekin alderatuz. Jardueren amaieran jaiak antolatzen ditugu, batzarrak, biltzarretarako deiak, eta hori guztiori adierazpide desberdinak konbinatuz (ahozkoa, idatzizkoa eta abar), horrela, jardueren onuradunen eta gure elkartearen arteko lotura hobetu dadin eta gure jardueren hartzaileek gure elkartearen aukera egoki gisa ikus dezaten.

Baina, era berean, emaitzak gizarteratzeko unea ere bada, eta, horretarako, erakusketak antolatu, kartelak jarri, irratietan elkarriketak egin eta gure mezuei zabalkundea emango dieten beste jarduerak batzuk egin ditzakegu.

Kontuan hartzeko zenbait **gako**:

- **Ideiek, mezuak, jendearen beharrezanekin bat etorri behar dute**, haien kode eta adierazpideekin bat etorri behar dute.  
→ *Beraz:* **zabalkundea egiteko modua eratu dezagun jendearen partaidetzaz.**
- **Ahalik eta hartzaile gehienengana heldu nahi dugu**, eta gure ekintzen hartzaileek ekintza horiek ezagutzea eta, nahi badute, ekintza horietan parte hartzeko aukera izatea behar dugu.  
→ *Horrela, bada:* **tartekatuta ditzagun bai mezuak bai komunikatzeko moduak, idatzizkoak, ikus-entzunezkoak, eta abar.**

- **Bultzatu dezagun onuradunak bat etortzea parte-hartzen duten jarduerak horiekin**, eta, horretarako, oso garrantzitsua da kontuan izatea pertsona horiek emaitzen zabalkundean izan beharreko protagonismoa.

→ *Beraz:* **zabal ditzagun parte-hartzaileen iritzi eta sentsazioak, egin ditzagun elkarriketak komunikabideetan, idatz ditzagun artikulatuak parte-hartzaileen ebaluazioekin eta antolatu ditzagun harreman-jarduerak arrakastak ospatzeko.**

- **Har dezagun kontuan jendearen esperientzien arloa**, egoki iritziak adierazpide guztiak konbinatzeko. Errazago ulertzen da norberak ezagutu dezakeena.

→ *Beraz:* **erabil ditzagun mundu guztiak ulertzeko moduko kodeak.**

- **Egokitu ditzagun jarduerak onuradunen bizi baldintzetara.** Deialdiak egitean, jendea etortzea nahi badugu, ordu eta egun egokienak aukeratu behar dira. Ezinbestekoa da norberaren lana eta etxea ez daitezela oztopo izan gure elkartera etortzeko orduan.

## • LAGUNTZAILEAK

Gure inguruko beste erakunde, elkarte eta talde batzuk; gure jarduerari bizkarra ez emateaz gain, gurekin bat etortzea eta laguntzea espero dugu haiengandik.





erantzun egin behar zaie. Hori da modurik onena geuk ere tratamendu bera jasotzeko besteengandik. Oso garrantzitsua da “etsenpluaren bidez predikatzea”.

→ *Beraz: bideratu ditzagun baliabideak eta denbora beste erakunde batzuekiko harreman eta komunikaziora.*

- **Truke eta harremanetarako jarrera irekia izatea.** Zeregin hau erakunde osoari dagokio, eta horrek jarrera irekia eta entzuteko jarrera eskatzen du. Gure elkarte beste elkarte batzuentzat hurbilekoa eta irekia den neurrian, egoera hobean egongo gara sinergiak lortzeko.

→ *Beraz: lor dezagun kide guztiok jarrera irekia izatea.*

- **Egin dezagun zabalkundea.** Sar ditzagun beste erakunde batzuen berriak, komentarioak eta iritziak gure komunikabideetan, gure zabalkunderako baliabideetan; izan gaitzela beste erakunde batzuentzat komunikazio eta zabalkunderako baliabide egokia.

→ *Horrela, bada: gorde dezagun lekua horientzat gure bulletin, aldizkari, foileto eta beste komunikabideetan.*

- **Ekintzez gain, sar dezagun edukia.** Etengabe lankidetzeta baino ez badugu eskatzen, beste barik, litekeena da ezezkoa jasotzea sarritan. Oso garrantzitsua da errealitatearen azterketa, interes komuneko iritziak eta beste eragile sozial batzuekiko (Administrazioa, hezkuntza, enpresak eta abar) harremanaren egoera konpartitzea.

→ *Beraz: antolatu ditzagun batzarrak, hitzaldiak, mintegiak, prestakuntza ikastaroak eta abar.*

- **Errealistak gara.** Erakunde bakoitzak neurri eta gaitasun jakin bat du. Planteatzen dugun komunikazioak gure hizketakideen edo beste elkartearen gaitasuna gainditzen badu, erantzuntzat ezezkoa hartzeaz gain, saturazio eta frustrazio sententzia eragingo dugu, eta hori oztopo nabarmena izan daiteke gure kanpo komunikaziorako.

→ *Horrela, bada: jakin dezagun gehiago gure hizketakide diren erakundeek duten egoerari buruz, egokitu ditzagun informazioa eta erantzunak haien egoerara.*

- Erakundearen arteko komunikazioa prozesu gisa ulertzen dugu. Nahi dugun erantzuna lehenengoan ez lortzeak ez du esan nahi denbora eta baliabideak alperrik galtzen ari garenik; harremanetan denbora behar da, eta ibilbide luzea egin behar da aukerak eta konplizitateak konpartituz.

→ *Beraz: ez dugu etsi behar, ebaluazio bateratuak egin behar ditugu eta helburuak epe ertain eta luzera planteatu behar ditugu.*

## • LEGITIMATZEN DUTENAK

Administrazio publikoa, hezkuntza, enpresak, erakunde babesleak, gure elkartearekin harreman zuzena dutenak, gure programetarikoz batzuk finantzatzen dituztelako edo batera lan egiteko



akordioa dugulako, edo erakunde horiek bultzatzen dituzten irizki foroetara joaten garelako...

Kasu honetan, ondo bereizitako bi alderdi ditugu: erakunde babesleak eta "aliatuak". Finantziario iturri diren erakundeekin proiektu batzuen inguruan ezartzen da komunikazioa; hori dela eta, txostenak eta memoriak egiteaz gain, jarraipen eta ebaluazio batzarrak ere egin behar dira. Erakunde "aliatuekin", komunikazio mekanismo iraunkorrak ezarri behar ditugu, gure baliabideen eta gizartean dauden baliabideen artean sinergiak ezartzeko, ahaleginak ez bikoizteko eta jarduerak hobeto kordinatzeko.

**Komunikazioan, gure helburu nagusia baliabideak lortzea eta koordinazioa dira.** Horretarako, erakundeen arteko trukeak eta harremanak praktika konkretuetan, praktika horien helburuetan eta praktika horiek hartzailer nagusiekin duten harremanean jarri behar du indarra, protagonismo eta pertsonalismoetatik ihes egin eta guztiauren aurretik gizarte eraginkortasuna jarritz.

Kontuan hartzeko zenbait **gako**:

- **Bakoitzaren papera onartzea.** Komunikazio ona ezartzeko, nahitaezkoa da bai gure elkarteak (edo koordinakundeak, plataformak, etab.) bai Erakundeek elkarri onartzea gure gizartearen garapenean dugun garrantzia.

→ *Horrela, bada:* **elkarren onarpena eta legitimitatea izan daitezela komunikaziorako abiapuntu, onar diezaiegun gure hizketakideei gure elkartearentzat eskatzen dugun balioa.**

- **Konfiantza sortzea.** Komunikazioa bultzatzen duen faktorea da, izan ere, ezinezkoa da Erakunde batek gure ekimenak bultzatzea, baldin eta ez badu gure eraginkortasunaren frogarik.  
→ *Horrela, bada:* **eman ditzagun kontuak, erakutsi dezagun zer egiten dugun eta nola egiten dugun, jar ditzagun emaitzak mahai gainean eta ez ditzagun ezkutatu gure ahulezia eta mugak.**
- **Batez ere, gardentasuna.** Babesle eta Erakundeekiko harremanetan batzuetan agertzen diren mesfidantza eta aurreiritzien aurkako antidotorik onena da gardentasuna. Izan ditzagun gure kontuak ikusi nahi dituztenen eskura, izan dezagun kudeaketa argi eta garbia. Hori eginez gero, guk gauza bera eskatu ahal izango diegu Erakundeek eta susmoetatik aldendu-tako komunikazioa ezarri ahalko dugu.  
→ *Beraz:* **argitaratu ditzagun gure kontuak, gure proiektuak, zabal ditzagun gure balantzeak, bai eta gure finantziario iturriak ere.**
- **Konplizitatea harremanean.** Komunikazioa bultzatzeko, ezinbestekoa da konplizitate giroa sortzea, egin behar komunean oinarritutako joko-arauak ezartzea. Horrek esan nahi du lankide ditugun Erakundeekin argumentu komunak eraiki



behar ditugula, ekintzetan erantzukidetasuna ezartzea eta atzera ez egitea une “gogorretan”, proiektuak azaldu behar direnean, beste Erakunde batzuei kontuak azaldu behar zaizkienean...

→ Beraz: **paperen banaketa argia egin dezagun, egin ditzagun ahalegin guztiak Erakunde eta elkarte jakin batzuekin ditugun itunen arrazoiak ulertarazteko, oinarritu ditzagun argudioak gure hartzaille nagusientzako dakartzaten onuretan eta jardun dezagun etikaz.**

- **Independentzia.** Elkarte askoren ustez, Erakunde publiko edo pribatu baten dirulaguntza jasotzeak edo horietako batekin hitzarmen bat sinatzeak haientzat lan egitea dakar, haien irizpide eta lehentasunen arabera. Hori ez da horrela, inondik ere. Komunikazio ona alderdi bakoitzaren independentzian oinarritzen da, akordioak egitean inork nortasuna galduko ez delako segurantzian, hain zuzen ere.

→ *Horrela, bada:* **gure ekintzak babesteko eskatzen dugu, baina gure independentzia defendatuz; herritarren erakunde gisa, gure autonomia ez dago salgai.**

## • ZABALKUNDEA EGITEN DUTENAK

Komunikabideez ari gara: irratia, prentsa, telebista, Interneteko atariak eta abar. Baliabide horietariko askok gure mezuak eman eta zabaltzeko aukera dute, eta, batzuetan, gure erakundeari,

jorratzen ditugun zenbait arazori edo gure lurraldeari buruz gizarateak duen iritzia baldintzatzeko ahalmena dute.

**Komunikazioan, gure helburu nagusia sedukzioa da.** Gizartean dagoen informazio kopuru handiaren artean, gure ekintza, proiektu edo iritziek lekua egitea nahi dugu. Horretarako, komunikabideekiko truke edo harremanari dagokionez, konplizitatean eta elkarri erabilgarritasuna onartzean jarri behar da indarra: guk haien nahi duten informazioa izan dezakegu eta haien informazioa behar dute; era berean, komunikabideek gure mezuak pertsona askorengana hedatzeko aukera dute, eta guk pertsona askorengana heltzeko beharrezana dugu. Argi dago ituna? Ez?

Kontuan hartzeko zenbait **gako**:

- **Gure ekintzak “albiste” bilakatu.** Sarritan, gure testuak, gure hizkuntza, ez dira kazetaritza estilokoa eta hori normala da, beste jende bati dago zuzendua. Hori dela eta, modu desberdinean “erabili” behar dugu komunikabideei emandako informazioa.

→ *Horrela, bada:* **sinplifikatu dezagun mezua, erabil ditzagun termino ezagunak, zehaztu ditzagun gauzak, ez dezagun ezer eman jakintzat, erabil ditzagun geure titularrak.**

- **Egokitu mezuak komunikabideetara.** Informazioa ezin da berdin erabili kasu guztietan; ez da gauza bera irratitik ematea, prentsa-ohar bat egitea edo telebistan elkarrizketa bat izatea.



→ *Beraz:* **egin dezagun geure gidoia, geure eskema, agerraldi edo prentsaurrekoetarako.**


- **Egokitu komunikabide bakoitzeko mezuak dagokion eragin eremuaren arabera.** Komunikabide bakoitzak bere eragin eremua dauka, batzuk tokian tokikoak dira, beste batzuk, autonomia mailakoak eta beste batzuk estatalak. Horrela, gure elkarteak hurbileko komunikabideetara jotzen badu, baliteke komunikabide horiek lekua izatea guretzat, baina komunikabide horiek eragin eremu zabalagokoak badira, gure mezuak zabaltzeko erakunde gehiagok batera egin beharko dugu.

→ *Beraz:* **ezar dezagun geure baliabideen agenda, gaika eta eragin-eremuka bereizita, horrela, kasuan-kasuan, mezuak leku egokietara bidal ditzagun.**

- **Edozein kasutan ere, zehaztasuna.** Ezer baino lehen, zehaztu ditzagun ondo mezuak, ez gaitezen adarretatik ibili, egin dezagun planteatzen dugunaren egiazkotasunaren aldeko apustua.

→ *Horrela, bada:* **zehaztasunak lana dakar, gure elkarteak datu bat ematen duenean, elkartearen sinesgarritasuna dago jokoan, eta sinesgarritasun hori areagotu egingo da zehatzak bagara. Ikertu, egiaztatu eta ikertu berriro ere. Ez dugu beste aukerarik.**

- **Kontaktuak pertsonalizatu.** Azken batean, komunikabideetan agertzea kazetaritzako profesionalen menpe eta komunikabide bakoitzeko erredakzio kontseiluen menpe dago. Horretarako, gure kontaktua pertsonalizatua, zuzena eta gizakoa izatea behar dugu.



→ *Beraz*: **ezagutu egin behar dira egunkari, irrati eta toki telebistetako “Gizartea” saileko arduradunak, izenez deitu behar diegu, gure informazioak eurenkin alderatu, materiala erregulartasunez bidali eta haien informazio iturri bilakatu behar dugu.**

- **Harremanen elkarrekikotasuna bultzatu.** Horrek esan nahi du batzuetan informazioa eskatuko diegula gure ekintzetarako, eta, era berean, haiek iritziak eskatuko dizkigute euren erreportaje baterako.

→ *Beraz*: **landu dezagun osagarritasuna harremanetan, izan dezagun informazioa (txostenak, ebaluazioak, iritziak eta abar) beti eskura, izan dezagun zerbait esateko uneoro.**

- Jar diezazkiegun eskura gure baliabideak. Sarritan informazio asko izaten dugu gure buletin, egunkari, web orri eta abarretan. Askotan, komunikabideren bati baliteke ondo etortzea informazio hori albiste bat oinarritzeko edo erreportaje bat egiteko, edo arazo zehatzei herritarrek emandako erantzuna aipatzeko.

→ *Horrela, bada*: **aldian-aldian gure agendan ditugun komunikabideei gure argitalpenak bidaliko dizkiegu.**

- **Erabil ditzagun baliabide guztiak.** Prentsa oharrak eta prentsaurrekoetarako deialdiak egin ditzakegu, iragarki bat sartu, irrati edo telebistako elkarrizketaren batean parte hartu.... baina, era berean, egunkarietako “zuzendariari gutunak” atalera ere idazkiak bidal ditzakegu, gure ekitaldietan komunikabideentzako deialdi berezia egin dezakegu edo eskura dugun

beste edozer egin dezakegu. Komunikabideak baliabideak dira, erabil ditzagun errealismoz, guk eman ditzakegun albisteak erabilgarriak izan daitezkeela kontuan izanik. Ahal dela, elkarrekikotasun harremana, harreman osagarria, ezarri behar dugu.

### 3.2.5. IRUDIMENA

→ **Graziaz kontatzen ausartu (edo formaltasunez, kasuaren arabera) ]**

#### A. IRUDIA ERAIKITZEN DUGU IRUDIEN MUNDU BATEAN

Esan ohi denez, lehen inpresioa da balio duena... jakin badakigun arren hori ez dela horrela bete-betea, ezin dugu ahaztu ematen dugun irudia oso garrantzitsua dela. Eraiki dezagun gure elkartearen irudia eta errazago ezagutuko gaituzte. Izan ere, zortzikoak dioenez...

*Txip, bite, azkar, azkar:  
hor gure mundua;  
ez ikusezin izan  
bestela, galdua*

Aldizkarietan sarritan agertzen dira “esan ze janzkera duzun eta nolakoa zaren esango dizut” erako edo antzeko galdetegiak. Gaiari azaletik helduz, esan genezake itxura formala eman nahi dugunean gorbata eta trajea janzten dugula. Gure alderik bitxie-



na erakutsi nahi badugu, txapelak edo koloretako gerrikoak janzen ditugu.

Sakontasunez pentsatuz gero, gure konpromisoak eraginda, esate baterako naturarekiko kezka eraginda, ez dugu larruzko berokirik erosten; era berean, kontsumoaren gizarte honetan “ezarritakoari” kontra egitearren, askok birziklatu egiten dituzte arropak eta ez dira modaren eskakizunetan erortzen.

Gure irudiak, lehen begiradan, nortzuk garen erakusten du (kanpoaldetik behintzat) eta, zalantzarik gabe, oso garrantzitsua da jakitea ze irudi ematen dugun. Horrela, benetan erakutsi nahi dugunarekin bat datorren irudia ematen dugulako ziurtasuna izan dezakegu.

### **Sormena adierazteko zenbait teknika:**

Teknika hauek zentzurik badute, adierazpidearen bultzatzaile gisa ulertu behar dira. Ez da mugarik jarri behar, adierazi egin behar dugu eta besteek ere adieraztea ahalbidetu behar dugu. Geroago etorriko da “iragazkia” eta aukeraketa.

### **>[ IRUDIMENAREKIN JOLASEAN ]**

*Irudiaz ari garenez, jolas dezagun irudimenarekin...*

- Zure elkartearen gizonezko edo emakumea balitz... ze arropa jantziko luke? Ausarta, xelebrea, formalak, zuhurra edo probokatzaila?

- Zure elkartearen animalia balitz, ze animalia izango litzateke? Kumea, animalia basatia, maskota, desagertzearen dagoen animalia, laguntzarako animalia, fantasiaren munduko animalia...?
- Zure elkartearen harria balitz, zer izango litzateke? Harri-koskorra, fosila, galtzada-harria, diamantea...?
- Zure elkartearen musika balitz, ze musika izango litzateke? Rock, klasikoa, hip-hop, heavy, rap, folklorea...?

### **>[ IDEA ZURRUNBILO EDO JASA ]**

- Ideiak sortzeko talde teknika da. Komenigarria da hasi aurretik “beroketa” ariketa batzuk egitea: esate baterako, A letraz hasten diren hitzetatik bururatzen zaizkigun guztiak esatea.
  - Sortu nahi ditugun ideien kopurua ezarri eta zenbat denbora sartuko dugun zehaztu dugu.
- Funtsezko lau arau beteko ditugu:
- > *kritika guztiak debekatuta daude,*
  - > *idea guztiak dira ondo etorriak,*
  - > *ahalik eta ideia gehien,*
  - > *baimenduta dago ideiak lotu eta kopiatzea.*
- Ideiak sortu ondoren, ideiak zein irizpideren arabera ebaluatuko diren ezarriko du taldeak (erraztasuna, luzera eta abar).

### **>[ ... DA HAU ESTA ... LEGEZ ERABILTZE DUT ]**

- Teknika hau taldean egitekoa da. Edozein objektu ezagun, eskuratzeko erraz eta sinple hartuta (boligrafoa, mahaia, aulkia eta abar), iritzien gurpilari emango diogu hasiera, objektuari ahal



denik eta “erabilera” gehien emateko ahalik eta denbora laburrean.

- Denbora edo itzuliak ezar ditzakegu (2 edo 3 itzuli).
- Ezinbestekoa da sormenari bidea libre uztea, planteamenduak apur bat surrealista edo bitxiak diren kontuan izan barik.
- Objektuz aldatu eta berriro egiten da ariketa.
- Dinamika hau oso egokia da transmititu beharreko eduki eta mezuen diseinua egin aurretik.

### > [ ADIERAZPIDE PLASTIKOKO TEKNIKAK ]

*Marrazkiak, collageak...*

- Oso egokia da kanpainen ikuspegiak definitzeko, gai interesgarriak jorratzeko eta ekitaldien deialdiak egiteko.
- Taldean, marrazki bat egingo dugu paper jarraian, edo collagea egunkari eta aldizkari zatiekin, gai batek edo komunikazioaren helburu den arloak iradokitzen digun guztia adierazten ahaleginduz (jardunaldien deialdia, informazio kanpaina, gure elkar-tea ezagutarazi eta abar).
- Denbora bat jarriko dugu egiteko. Garrantzitsua da nabarmentzea kontzeptuak direla interesgarriak eta ez marrazkien kalitatea, bestela, baliteke hain trebeak ez direnek atzera egitea.
- Horma-irudia edo collagea egin ondoren, azal dutako mezu nagusiak interpretatu eta eztabaidatuko ditugu eta denak izango ditugu kontuan.
- Azkenik, ideia, kontzeptu edo ikuspegi bat aukeratuko dugu gero garatu ahal izateko.

Baliteke teknika hauen bidez, zure elkartearen irudia izan litekeenaren inguruan hainbat ideia edo irudi azaltzea. Jolastu ideiekin, konbinatu, pentsatu zergatik bururatu zitzaizun irudi jakin bat zure elkartearekin lotzeko. Irudiek beti adierazten dute gure izaeraren zerbait. Kontrastatu zure elkarteko lagunekin, bilaketa prozesua izan dadila dibertigarria.

“Irudiaren inguruan irudimena zabaltzeko” komentatu diren proposamenetarikoz batzuk, beharbada, baliagarriak izan daitezke, baina komenigarria da denak jasotzea, eztabaidatzea eta sistematizatzea, benetan erabilgarriak izan daitezen.

Honen guztiaren garrantzia begi bistakoa da; gure eguneroko bizitzan etengabe ikusi eta erabiltzen ditugu irudi horiek, eta batzuetan benetako sinbolo bilakatzen dira. Sinbolo horien atzean pentsaera, bizitzaren gaineko jarrera eta balio jakin batzuk daude.

Duela hainbat urterik hona lotzen dugu nuklearren aurkako mugimendua eguzki irribarretsu batekin (eguzki hori ez dugu udarekin edo Espainia aldeko eguzki ederrarekin lotzen); amnistia internazionala alanbre-hesi batekin (ez dugu ganadu barruti batekin lotzen); mugimendu zapatista mozorro batez estalitako aurpegiarekin (eta ez dugu pentsatzen delinkuenteak direnik).



## **B. EUSKARRIA. ESAN ZERI EUSTEN DIOZUN ETA ZERGATIK EZ ZAREN JAUSTEN ESANGO DIZUT (EDO JAUSI EGITEN ZARA?)**

Zenbat bider...

- *“Igaro dituzue orduak eta orduak gutunak gutunazaletan sartzan, seiluak jartzan, ezin duzuen gastatzen eta, azkenean, betikoak etortzeko, hau da, lehendik ere bazekitenak”.*
- *“Arratsalde asko eta asko jarduera prestatzen egon, programazioa ezin hobea da, jendea motibatuta dago, ordutegiak ezin hobeak, baliabideak ere eskura daude eta, azkenean, publikitate. Kartelak azken orduan eta presaka atera. Baten batek irakurtzeko astirik izan balu, konturatu ere ez zen egingo hain gutxi erakartzen duen kartel batean”.*
- *“Asko pentsatu ondoren, publikitate agentzia batean inbertitu dugu kanpaina diseinatu dezan. Ez da aurreikusitako emaitzarik lortu gastatutako dirua kontuan izanda. Zerk ez du funtzionatu?”*

Zaila da atal hau bukatzea, ez baitago ez irtenbide bakar ez erre-zeta hutsezinik... Komunikazioaren, zabalkundearen eta publikitatearen mundu honetako azkarrenek ere egiten dituzte akatsak sarri.

Baina... gure erara, geure baliabideekin izan arren, formula berriak eta erakargarriak bilatzen ahalegindu behar gara, bai eta komunikatu nahi ditugun mezuentzako euskarri egokiak ere,



gure jardueren helburu diren pertsonengana nortasuna galdu barik hel gaitezen.

Komunikazio prozesuetan zentzu guztiak sartzen dira; dena dela, gehien erabiltzen ditugunak ikusmena, ahotsa (soinuak, hitzak...) eta entzumena dira; komunikazioaren eduki eta helburuaren arabera, zentzu bati edo besteri lehentasuna emateko aukera dugu, eta, era berean, euren arteko harremanak ezar ditzakegu eskura ditugun baliabide eta aukeren arabera.

Informazioen euskarriak diseinatzerako orduan, honako alderdiak izan behar ditugu kontuan:

- Aukeratutako euskarria **koherentea** izatea mezuarekin eta komunikatu nahi dugunaren irudi argia eman dezala.
- **Eraginkorra** izatea, eta nahi dugun pertsoneri transmititu nahi dieguna komunikatu dezala, eta, era berean, denbora eta baldintza egokietan informatzeko balio dezala.
- **Erraza** izatea, erraz ulertzen dena eta modu positiboan aurkeztutako mezuak izan ditzala.

Pentsatu zer komunikatu nahi duzun eta nori zuzenduta dagoen informazio hori, kontuan izan zertarako komunikatu nahi duzun mezu hori, egin baliabideen gaineko balorazioa eta begiratu euskarriei dagokienez dauden aukera guztiak.

*Eta ez ahaztu...*

- Garrantzitsuena euskarri bakoitzari ematen diogun erabilera dela, jendeak egiten parte har dezala. Erabilitako baliabideak sortzaileak badira eta partaidetza bultzatzen badute, areagotu egingo ditugu arrakastarako aukerak.
- Beti da interesgarriagoa eta eraginkorragoa euskarriak tartekatzea. Mezua gehiago nabarmentzeaz gain, komunikazio prozesuan pertsona gehiago inplikatzeko ahalbidetzen du horrek.
- Gogoan izan ez dela gauza bera, batetik, informatzea edo zabalkundea egitea –normalean arreta gehiago jarri behar da edukietan mezuan baino- eta, bestetik, publizitatea egitea (normalean kanpaina eta deialdietan egiten dugu hori), izan ere, publizitatean garrantzitsuena arreta gauza konkreturen baten gainean jartzea da.

### C. ARRAKASTA: “ESTILO” KONTUA?

Aurkitu zure elkartearen estiloa, begiratu erabiltzen dituzun mezu eta euskarriak bat datozen estilo horrekin. Ausartu zaitze baliagarria ez dena edo gustatzen ez zaizuna aldatzen.

Horretarako, test bat prestatu dugu, TESTILOA



Irakurri arretaz, erantzun zintzo, erantzunik egokiena aukeratzen saiatuz:

## TESTILO

**1** Demagun zure elkartearen lehenengoz doala “Elkarteen II. Topaketara...”; zein metodo aukeratuko zenuke zeure burua aurkezteko:

- a. Elkartearen foilettoa eta zuzendaritzako txartelak eman.
- b. Talde dinamika egin, harremanak bultzatzeko eta elkar hobeto ezagutzeko.
- c. Panel bat egin elkartearen helburu eta esperientziekin.
- d. Gonbidapenak banatu “Benetako topaketa” izeneko jaialdi baterako.

**2** Zure elkarteak auzunean garbiketa kanpaina batean parte hartzeko hitz eman du, ze lema aukeratuko zenuke?

- a. Hona gure lema: garbi-garbi dena.
- b. Gure elkartearekin, dena garbi eta fin!
- c. Distiratsu utziko dugu auzunea.
- d. Edukiontzia gehiago, arratoi gutxiago.

**3** Auzunean jardunaldiak izango direla aprobetxatuz, zure elkarteak inguru horretan kide gehiago lortzeko jardueraren bat egitea pentsatu du. Zer egingo du:

- a. Egitarauan bertan informazio hitzaldi baterako deialdia egingo dugu, nortzuk garen eta gure elkartearen zer egiten dugun jakiteko.
- b. Jardunaldietan integratuko gara lan eginez eta baliabideak eskainiz.
- c. Tailer bat aurkeztuko dugu eta esperientzien mahai batean parte hartuko dugu.
- d. Kalejira bat egingo dugu eta pegatinak jarriko ditugu “bazkide txartela” lemarekin, eta gure elkartera hurbiltzeko gonbitea egingo dugu.

Orain **emaitzak** aztertuko ditugu. Galdetegi itxietan gertatu ohi denez, erantzunak mugatuak eta nahikoa estereotipatuak dira; beharbada, zuon estiloa ez da bat etorriko erantzun batekin ere ez, baina, beharbada, lagundu egingo dizu zuon estiloa identifikatzen, behar diren aldaketak egiteko:

**Erantzun gehienak**, a: Zure elkartearen estiloa formaletik hurbil dago. Argi ditu helburuak eta harro dago egin duen lan patxadatsu, serio eta zuzenaz. Beharbada patxadatsuegia? Apur bat serio-egia, agian? →



**Erantzun gehienak, b:** Zure elkartean garrantzitsuena giroa da, jendea gustura egotea, gustura lan egiteko giro atsegina sortzea. Baina ez ahaztu giro ona oso egokia dela artajorran egiteko; eta hori ere egin behar da.

**Erantzun gehienak, c:** Zure elkartean ezaugarri nagusia antolaketa da. Lan zehatza eta metodikoa. Jendeak konfiantza dauka zuengan, eta konfiantza hori zeuok irabazi duzue. Ohar bat baino ez; ez baztertu sekula bihotza arrazoiaren orde, eta zehaztasunak ez dezala zuen malgutasun eta fantasia deuseztatu. Horiek ere ezinbestekoak dira.

**Erantzun gehienak, d:** Beldurrik gabe. Disimulurik gabe. Kiderik gabe? Horixe da zuen elkartean estiloa. Probokatzaila. Beste elkarrekin badute zer ikasi zuen ideien iturri amaigabekotik, zuen jarrera aske horretatik, zuen puntu barregarri horretatik. Estilo hori erabiltzen baduzue, zuen lagungarri izan daiteke, baina estilo hori zuen printzipio bilakatzen bada, mugatu egin dezake zuen lana arlo askotan.

## D. HIZKUNTZA. HITZA GERATZEN ZAIGU

Edukiaren eta itxuraren edo etikaren eta estetikaren arteko betiko dikotomietan, sarritan, gure mezua edukian jartzen dugu

arreta guztia, eta ez diogu merezi duen garrantzia ematen eduki horiek esan eta adierazteko moduari.

Erabiltzen dugun hizkuntza oso-oso garrantzitsua da ezartzen ditugun komunikazio prozesuetan; informazioa emateaz gain, pentsatzen, sentitzen edo amesten duguna adierazteko gai da. Entzun gaitzaten hitz egiten dugu, baina gauzak esan edo idaztean nortzuk garen eta zein balioaren arabera mugitzen garen adierazten dugu. Hizkuntzan ia denak balio duen arren –kasuaren eta egoeraren arabera–, beharbada, komenigarria da gomendio batzuk gogoratzea:

- Hizkuntza argia, zuzena eta xumea erabiltzea izaten da errazena, baldin eta gure mezua ulertzea nahi badugu.
- Hizkuntza “baikorra” erabili, ahal dela baiezeko esaldiak egin. Izan ere, “ez” erabiltzea gogorregia da eta kasu batzuetan beharrezkoa da (Gerrarik ez!...), baina kontuz ibili behar dugu ukazio gisa planteatutako esaldietan, ulertzen zailagoak dira eta komunikazioa ixteko joera dute.
- Kontuz ibili inperatiboaren erabilerarekin; sarritan lar erabiltzen dira honelako esaldiak: “Etorri!, Zoaz!, Gozatu!, eta abar”. Agindua beti da agindua. Beharbada, erakargarriagoa izan daiteke gonbidapen bat egitea edo zerbait iradokitzea, mezua jasotzen duenak ez dezan hartu betebeharreko inposizioa balitz legez.
- Nahitaez aurkitu behar dira idazteko formula integratzaileak (hizkuntza inklusiboa). Gure hizkuntzak zaindua izan behar du,




inor baztertuko ez duena (baztertu nahi ez badugu behintzat). Ildo horretatik, ez erabili hizkuntza sexista, gauzak planteatzera-koan “gu” erabili eta zaindu talde bereziei emandako tratamenduak. “Berez” ateratzen zaigun zerbait izan beharko litzateke hori.

- Argota, hizkera arrunta edo lagunartekoa eta esamoldeak erabiltzea beste baliabide bat da, baina kontuan izan behar dugu horiek erabiliz gero, murriztu egiten dela testuinguru soziokultural jakin bateko kideekiko komunikazioa.

- Hizkuntza aberatsa, aldakorra eta dibertigarria da. Interesgarria da hitzekin jolasten ausartzea: zentzu bikoitza, ironia, hitz asmatuak... erabiliz gero, mezu erakargarria egin daiteke, couche pape-  
ra, koloretako testua edo tipografia berezirik erabili gabe.

- Hizkuntza ez da neutroa, ahozko edo idatzizko hizkuntza ideologia, kultura eta balioez beteta dago. Behin eta berriro hizkuntza objektiboa eta neutroa egiten ahalegintzen bagara, ñabardurak ken diezazkiokegu hizkuntzari. Zure elkarteak erabilitako hizkuntzak adieraz dezala benetan zaretena: nabaritu dadila zuen mezuetan jendeagatik arduratzen zaiten edo ikus daitezela zuen sentimenduak eta pertsonen arteko harremana.

- Hitz potoloak, esate baterako, “partaidetza”, “elkartasuna”, “eskubideak” eta abar, oso erabiliak izan dira eta, batez ere, oso txarto erabiliak; hori dela eta, sarritan esanahia galdu dute, gas-tatu egin dira, eta benetako zentzua aurkitu behar da, eta partaidetza edo elkartasuna horretatik benetan lortu nahi duguna edo espero duguna adierazi behar dugu.



## HIZKUNTZA ERABILTZEKO IRADOKIZUNAK

Esapide hauek  
erabili beharrean...

Hobeto hauek...

... ez dago ekitaldi horretara joan nahi ez duen inor..  
... **mundu guztiak joan nahi du ekitaldi horretara.**

tolerantzia **errespetua**

inmigranteen integrazioa lortu behar dugu.  
**persona inmigranteekin hitz egiten eta elkar ezagutzen hasi behar dugu.**

... beste arraza batzuetako pertsonak.  
... **beste kultura, beste etnia... batzuetako pertsonak.**

... homosexualen eskubideak.  
... **personen eskubideak, haien orientazio sexuala kontuan hartu barik.**

Denok gara berdinak  
**Pertsona guztiak gara berdinak**

Zatoz jaira! Ez galdu aukera! Ondo pasako duzu!  
... **Bazatoz jaira? Bazatoz, seguru ondo pasatuko duguna**

Zuretzat, emakume...  
**Guretzat, emakumeontzat...**

Prostituten arazoa...  
**Merkataritza sexualaren arazoa...**

Esapide hauek  
erabili beharrean...

Hobeto hauek...

Txangoan daramatzat nire emakumeak...  
**Txangoan noa elkarteko emakumeekin.**

Drogazale edo toxikomanoen arazoa.  
**Drogen abusuarekin zerikusia duten arazoak.**

... datozenek eskaintzen ditugun jolas-jardurekin gozatzeko aukera izango dute...  
... **jolas-jardurekin gozatuko dute (edo gozatuko dugu)...**

... nire zuzendaritza batzordea...  
... **zuzendaritza batzordea...**

Bazkideei batzarrerako deia egiten diegu...  
**Bazkide diren lagunei batzarrerako deia egiten diegu...**

Mutikoentzako tailerrak  
**Umeentzako/Haurrentzako (edo neska-mutikoentzako) tailerrak.**

Auzune honetan bizi diren gizonak...  
**Auzokideak...**  
**Auzune honetako gizon-emakumeak...**

Zeuri ere dagokizu, PARTE HARTU!  
**Bazatoz... irtenbideak aurkitzeko aukera izango dugu...**

### 3.2.6. IDEIAK

→ **Elkarteen komunikaziorako baliabideak ]**

#### → **Ahozko euskarriak**

- **Banan-banako informazio eta aholkularitza:** pertsonarik pertsona egiten da, elkarrizketen eta kontaktuen bidez, dokumentuak eta beste material informatibo batzuk emanez...
- **Informazio batzarrak:** nola eman informazioa gure elkarteko proiektu eta jardueren hartzailerik izango direnei.
- **Trukerako espazioa:** aldian aldiko espazioak, beste elkarte eta talde batzuekin, gure jardueren hartzailerik eta gizarteko beste sektore batzuekin informazioa trukatzeko eta hitz egiteko.
- **Komunitatearen jardueretan parte hartzea:** elkarteak komunitatean egiten dituen jardueren edo zerbitzuen (jardunaldiak, jaiak...) gaineko informazioa aurkeztuz.
- **Prentsurrekoak:** komunikabideei egindako deialdiak arazo bat azaltzeko, zerbait iragartzeko, etab. Zabalkunde handia eman nahi zaionean.

#### → **Idatzizko euskarriak**

- **Foiletoak:** zabalkunde handia egiteko baliabidea da, elkarteak aurkezteko, jarduera eta zerbitzuen berri emateko...
- **Iragarki oholak:** Ikusteko moduko lekuan egon behar dute; erabilgarriak dira, baldin eta iragarki horien hartzailerik izan behar-ko luketenak sarritan pasatzen badira bertatik.



- Informazio gutun eta oharrak: pertsona edo erakunde zehatz batzuei zuzendutakoak.
- Prentsa oharrak: komunikabideei zuzenduak (tokiko egunkari, irrati eta telebistak, etab.).
- Jarduera eta/edo proiektuen memoriak: elkarteak egiten duena jasotzen duen dokumentazioa; zenbait aurkezpenetarako baliagarria da.
- Aldian aldiko buletinak: sinpleak izan daitezke (informazio zehatz batzuei buruzko orri bat edo bi) edo laburragoak, esate baterako, aldizkariak (informazio, artikulua, kolaborazio... eta guzti).

#### → Euskarri grafikoak

- **Kartelak:** argiak, erakargarriak eta deigarriak.
- **Horma-irudiak:** kartelak bezala, deigarriak izan behar dira.

#### → Ikus-entzunezko euskarriak

- **Bideoak:** informazioa emateko edo salatzen. Dokumental edo telebistako iragarki formatuan, tokiko telebistetan errazago sar ditzaten.
- **Irratiko iragarkiak**
- **Diaporamak:** argazki edo diapositiba muntaiak ahozko azalpen eta guzti.
- **Euskarri informatiboak:** Web orria euskarri oso ona izan daiteke geure burua ezagutzera emateko eta gainontzeko pertsona

eta erakundeekin informazioa trukatzeko. Informazioa, gainera, uneoro eguneratu daiteke. Ordenagailu bati lotutako proiektoreekin egindako aurkezpenak oso eraginkorrak dira.

#### → Beste euskarri informatibo batzuk

- **Antzezpenak:** antzerkiak, kalejirak, performanceak oso deigarriak dira eta zerbait iragartzeko edo salatzen balio dute.
- **Mezudun opariak:** zenbait opari, esate baterako, globoak, loreak, jostailuak eta abar mezu batzuen euskarri izan daitezke edo, bestela, mezuen lagungarri.
- **Giza kateak:** pertsonekin bakarrik egin daitezke edo, bestela, pertsona eta karteekin, mezuak osatzeko.
- **Ipuin-kontalariak, emanaldiak, kontzertuak:** oso erakargarriak dira eta normalean baliagarriak dira salaketak eta errebindikazioak egiteko.
- **Pintadak eta grafitiak:** jarduera ondo antolatuz gero, parte-hartzaileekin alde aurretik planifikatuta, eduki argia ezarri gero, garbiketa kontuak behar bezala prestatuz gero, auzokideekin adostasuna lortuz gero, etab., emaitzak onak izaten dira eta gazteentzat erakargarri izaten da.

Ondoren, beheko koadroan, laburpen gisa, zuen elkarterako zenbait ideia aurkezten dizkizuegu, bai euskarri mota bai gure informazioetarako nahi dugun zabalkundea kontuan hartuta:



## EUSKARRIAK ERABILTZEKO IRADOKIZUNAK

### sakontasunez ezagutu gaitzaten...

#### AHOZKOAK

Mahai-inguruak / Hitzaldi-etzabaidak /  
Banan-banako elkarrizketak / Informazio batzarrak /  
Koordinazio batzarrak beste erakunde batzuekin

#### IDATZIZKOAK

Txostenak / Memoriak / Aldizkariak / Zuzendariari gutunak /  
Iritzi artikuluak / Helbide elektronikoen zerrendak

#### GRAFIKOAK

Azalpen panelak / Erakusketak / Argitalpenak

#### IKUS-ENTZUNEZKOAK

Dokumental erako bideoak / Web orria /  
PCan egindako aurkezpenen proiektzioa /  
CD-Rom / Diaporamak

#### BESTE BATZUK

Ipuin-kontalaria / Antzerkiak, kalejirak, performanceak /  
Gymkanak / Konbibentziak

### jende askok ezagutu gaitzan...

#### AHOZKOAK

Jaialdiak / Jardunaldiak / Topaketak / Ekitaldiak orokorrean /  
Prensaurrekoak

#### IDATZIZKOAK

Foiletoak (diptikoak, triptikoak) / Iragarki-oholak /  
Buletinak / Gutunak (mailing) / Prentsa oharrak

#### GRAFIKOAK

Kartelak / Horma-irudiak / Pankartak / Liburu-markatzaileak /  
Merchandising (kamisetak, boligrafoak, pegatinak eta abar)

#### IKUS-ENTZUNEZKOAK

“Publizitate spot” erako bideoak / Irrati iragarkiak /  
Telebista edo irrati programetan parte hartzea /  
Buletin digitalak

#### BESTE BATZUK

Mezudun opariak / Pintadak, Graffitiak /  
Kontzertuak, emanaldiak / Kontzentrazioak, manifestazioak /  
Ekintza zuzen ez biolentoak  
(testigantza emateko okupazioak, giza kateak eta abar)



Adibide gisa, prentsa oharrak idazteko zenbait ideia planteatuko dizkizugu. Kontua da jarduera edo ekitaldi bat albiste bihurtzea, hizkera zuzen eta zehatza erabiltzea, larregi korapilatu gabe eta, ahal denik eta espaziorik txikienean, gure informazioa ematea “publiko guztietarako”. Dena dela, komunikabideetako ardura-dunek gure elkarteak ezagutzen badute, errazago azalduko da informazio hori komunikabideetan.

Hori kontuan izanik, gure komunikabideen agenda atera eta ohar bat bidaliko diegu. Kontua da gidoi bat jarraitzea, ez dadin ezer lotu gabe geratu. Beraz, honako hauek azaldu behar ditugu:

### Titularra

Biolentziaren aurkako zikloa.

### Nortzuek

“Cuartillo”ko emakume elkarteak...

### Zergatik

... Emakume Langilearen Eguna dela eta, eta gure hirian emakumeen kontrako gero eta ekintza biolento gehiago dagoenez...

### Zer

... “Emakumea eta biolentzia” lehen hitzaldi zikloa antolatu du, eta honako adituak etorriko dira:...

### Non

Hitzaldiak ...(e)an izango dira

### Noiz

...martxoaren 8, 9 eta 10ean, eta 19:00etan hasiko dira...

### Berezitasun nagusia

Azpitarratzekoa da, gure herrian lehenengoz, ekitaldien egitarauak 16 herri elkarteren babes jasoduela, eta elkarte horiek bat egiten dute “Ez isildu!” manifestuarekin; helburua da sinadurak batzea...

### Gaiaren gainean dugun jarrera...

Beste behin, “Cuartillo”ko emakume elkarteak bere elkartasuna azaldu nahi die jazarpena eta biolentzia jasaten duten emakume guztiei, eta agintari guztiei eskatu egiten die babes eta heziketa neurriak areagotu ditzaten, emakumeen kontrako biolentzia behin betiko desagertzeko...

### Deia egin...

... Hori dela eta, gure hiriko herritar, elkarte eta talde guztiei deitu egin nahi diegu hitzaldi ziklo honetara etor daitezen, eta, horrela, beren elkartasun eta laguntza agertu dezaten...



### 3.2.7. INTERNET

→ **Sareen garrantzia, Internetek eskaintzen dituen aukerak ]**

Idea bat egiteko... Internet mundu osoko telefono lineaz osatutako sare handi bat da, baina linea horietara telefonoak konektatu beharrean ordenadoreak daude konektatuta, eta horien bidez informazioa bidali eta jasotzen da (testuak, irudiak, soinua...), eta sare horretako erabiltzaileok elkar komunikatzeko aukera dugu.


#### **A. Internet eta Gizarte Mugimenduak**

Interneten hainbat eta hainbat eduki, informazio eta erabilgarritasun aurki ditzakegu. Gakoa hauxe da: komunikazio handia eta garrantzitsua ahalbidetzen duela pertsona askoren artean, murrizketa eta mugarik gabe (behar den teknologia izanez gero eta hizkuntza menperatuz gero).

*Baina, zein da gure zeregina "sareen sare" honetan? Zer gara?...*

> *Kontsumitzaileak? (Txarteldun herritarrak)*

Hala da. Informazioa zein produktuak kontsumitu ditzakegu. Ezin da ahaztu Interneten arrakasta handia sare horrek merkataritzarako eskaintzen dituen aukera handietan oinarritzen dela. Etxetik atera gabe eros dezakegu, eta enpresentzat oso erakargarria da edozein gauza gure eskura (eta gure poltsikoaren esku-  
ra) jartzea.



> *Erabiltzaileak? (Pasahitzeko herritarrak)*

Teknologiaren beraren erabiltzaileak, programen erabiltzaileak, sarbideen erabiltzaileak, informazioaren erabiltzaileak. Gure pantailan jazotzen denaren ikusle baino ez gara, klik egin eta gure interesak asetzen dituzten edukiak aurkitzen ditugu: bihozteko taldearen emaitza begiratu, bikotekidea topatu, Ekialde Hurbileko azken berriak, musika entzun edo museoa bisitatu.

> *Partaideak? (Herritar nahastua)*

Internet erabiltzen dugu jarduteko, gure errealitatea gure interesen eta beharizanen arabera aldatzen saiatzeko; komunikazio eta informazio aukerak aprobeztatzen ditugu, gure jarduera zabaldu eta biderkatuz, beste esperientzia batzuk ezagutuz, ikuspegiak konpartituz, beste batzuei lagunduz eta elkarri lagunduz, besteen partaidetza ahalbidetuz, lehen urrun zeuden baliabideak erabiliz, etab. Ez gaude bakarrik, orain horretaz konturatu gaitzke, pertsona asko konektatzen dira helburu berberak lortzeko... "elkartu" egi-ten dira Internet bidez.

## **B. Zertarako balio du Internetek**

Internetekin lan eginez gero, irekita gaude orri edo gune bakoitzean gure elkartearen lanerako baliagarria izan daitekeen informazioa eta teknologia aurkitzera.

Guretzat orain arte ezezaguna zen lengoaiara ohitzea esan nahi du, eta beste elkarte batzuekin esperientziak trukatzeko aukera emango digu, horrela, hazkunde bateratu eta solidarioa lortu ahal izateko.

## **Internetek balio du...**

> **INFORMATZEKO:** Internet batez ere Informazioa da. Modu errazean bilatzeko aukera ematen digu eta edozein erakunde, elkarte edo norbanakoren informazioa lor dezakegu, baldin eta sarean jarri badute. Horretarako, oso interesgarriak dira "bilitzaileak", izan ere, hitz bat sartuz gure elkartearentzat baliagarria izan daitekeen hainbat eta hainbat informazio lor dezakegu.

> **KOMUNIKATZEKO:** Internetek posta elektronikoaren bidez, txaten bidez (elkarrizketak zuzenean), bideokonferentzien bidez, eztabaida foroen bidez... komunikatzeko aukera eskaintzen digu.

*Komunikaziorako oinarrizko baliabideak:*

**Posta elektronikoa:** Interneteko erabiltzaile bakoitzak izen edo helbide bat dauka sarean. Posta elektronikoaren (e-mail ere deitzen zaio) bidez, mezuak eta informazioa bidali ahal zaio Internet erabiltzen duen edozein pertsonari, munduko edozein lekutara eta oso denbora laburrean; gutun normal bat bidaliko



bagenu bezala, baina askoz azkarrago (kasurik txarreanean minutu batzuk behar ditu heltzeko). Baina badu beste abantaila bat ere: mezuari erantsita artxiboak bidal daitezke, eta, horrela, lan baliabide oso boteretsua bilakatzen da.

**Txatak eta IRC, zuzenean hitz eginez:** Taldean elkarrizketak eta eztabaidak izateko beste modu bat dira Txatak eta IRCak. Elkarrizketak zuzenean eta unean bertan izaten dira kanal zehatz bati konektatutako norbanakoen artean. Horrela, batzarrak edo eztabaidak izan daitezke leku desberdinetako jendearen artean... parte hartzeko beste modu bat da.

**Eztabaida foroak:** Eztabaida foroetan gure iritzia eman dezakegu zenbait gairi buruz, besteen iritzia ere irakur ditzakegu eta iritzi horiei erantzun. Erabilgarria da, batez ere, gai interesgarri bati buruz iritzia eta ikuspuntuak jakin behar ditugunean. Espazio horietan, eraginkorrak izan daitezten, “moderatzaila” behar da (galderak egin, laburpenak prestatu...), horrela, iritzia, argumentazio ildo desberdinak ezarriz antolatzen baitira.

**Posta zerrenda:** gai jakin bati buruzko informazio zehatza jaso eta bidali nahi dugunean, posta zerrendekin bat egin edo posta zerrendak sor ditzakegu. Esate baterako, posta zerrenda bat ezar daiteken herri bateko herritarren elkarte guztietarako, horrela, edozein informazio garrantzitsu izanez gero, elkarte bakoitzak bidalketa bakar bat eginez denei helarazi diezaieke.

> **ELKARRERAGINA:** Interneten zenbait ekintza egin ditzakegu... baina prestatu, ikasi, parte hartu... ere egin dezakegu.

**Sarean prestatzea:** Gero eta on-line ikastaro gehiago dago. Ikastaro horietan aurrez aurreko ikastaroetan ematen diren baliabide berberak aurki ditzakegu (edukiak, tutoretzak, beste partaide batzuk eta abar). Material asko sarean daude eta bakoitzak nahi duenean erabil ditzake. Era berean, ariketa praktikoak ere badaude, etxetik edo gure elkarteko lokaletik ikasketa elkarreragilea ezartzeko.

**Partaidetza:** Internet elkarteentzat erabilgarria izan dadin, baliabide honi erabilera parte-hartzailea eman behar diogu. Internetek partaidetzarako irekia egon behar du. Interneteko orririk onenak gure iritzia emateko, besteekin bat egiteko, eztabaidatzeko, elkarrekin jarduteko, proposatzeko, imajinatze... aukera ematen dutenak dira. Horretarako, ezinbestekoa da gure hizketakideekin harremanik onena ahalbidetuko diguten baliabideak izatea.

### C. Geure web orriak egiteko jarraibideak

Irisgarritasun zailtasunen gainetik (mundu guztiak ez dauka teknologia hori erabiltzeko aukerarik), egunean-egunean ari dira sartzten elkarteak Informazio eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT). Horrela, bada, web orriak dituzten, posta



elektronikoa duten edo txat bidez harremanak dituzten elkarten kopurua gorantz doa. Hori dela eta, ondoren zenbait jarraibide dituzue gure kanpo komunikazioa hobetuko duten erabilgarritasun telematikoak ezartzeko.

- **Web orria eta baliabide birtualak hori dira, baliabideak;** beraz, lehen planteatutako galdera berberak egin behar dituzue. Ez da beharrezkoa gure elkartearen komunikazio estrategikotik aldentuko den planteamendu bat izatea; kontua da IKTek eskaintzen dizkiguten erabilgarritasunei ahal denik eta etekinik handiena ateratzea.

- **Gure produktu, zerbitzu eta proiektuak ondo erakutsi eta azaldu behar ditugu.** Gure web orrian sartzten den edonork argi eta garbi aurkitu behar du menu egoki baten bitartez zer garen eta zer egiten dugun.

- **Inkesta gisako galdetegiak sartu.** Horrela, elkartearentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiei buruz gure bisitariak duten iritzia jakin ahal izango dugu, eta, modu horretara, gure ikerketetatik ateratzen ditugun datuekin alderatu.

- **Espazio desberdinak ezarri interes desberdinetarako komunikazioan.** Informazioa nahi duenarentzat, berriak; iritziak nahi dituenarentzat, artikulua; komunikazioa nahi dutenarentzat, txatak, eztabaida foroak eta abar.


- **Espazio “birtualak”, edo bizirik daude edo, bestela, ez daude.** Elkarte askok web orria “erakusleihoa” balitz bezala diseinatzen dute, eta, horrela, bigarren edo hirugarrenez bisitatzen duenak utzi egiten dio berriro sartzeari. Hori dela eta, baliabideak dinamizatu eta eguneratu egin behar dira; edozein elkarteren barruan egin beharreko beste zeregin bat izan behar du horrek.

- **Kontuan izan behar dugu norentzat jartzen dugun informazioa.** Gure informazioaren hartzailleentzat, erakundeentzat, gure kide diren elkarteentzat, erakunde finantzazailleentzat... espazioak jarri behar ditugu. Gure web orriak gure harreman sarea islatu behar du.


- **Irudiak, estiloak eta adierazpideak formatu berrira egokitu behar dira.** Espazio birtuala ez da foileto, kartel edo txosten baten modukoa. Web orri baten “leiho” asko ditugu, baliabide elkarrengileak jar ditzakegu, eta, horrela, informazioaren tratamendu desberdina egiteko aukera daukagu. Informazioa modu labur eta erakargarriagoan eskaini dezakegu, eta interesa duenak informazio hori zabaltzeko aukera izango du. Diseinuari dagokionez, erakunde gisa dugun irudiarekin lotura izan behar du, inguru erakargarria eskaini behar dugu, kolore, trama eta abarrei dagokienez, nabigazioa erraza izan dadin, izan ere, irudi gehiegi sartuz gero, askoz motelago kargatzen dira orriak. Bizitzan gauza askorekin gertatzen den legez... arrakasta eduki, diseinu, irisgarritasun eta elkarrekintzaren arteko orekan datza.



- Gure web orrietan argi eta garbi azaldu behar da gure elkartearekin erraztasunez kontaktatzeko modua. Izan ere, ahal dela, kontaktuan jartzeko modu desberdinak konbinatzea gomendatzen dugu: e-mail, telefonoak, faxa, helbidea, eta, ahal bada, arloekin, proiektuekin, arduradunekin... kontaktuan jartzeko aukerak ere eskaintzea.



# 44 zenbait alderdi etiko



**Koaderno honen izena “Elkarteen komunikazioa” da.** Izen hori du, eta ez beste bat, gure esperientzian oinarrituta eskaini ditugun eta gure ustez erabilgarriak edo praktikoak diren aholku, baliabide, ekarpen eta gako hauen guztien atzean asmo argi bat dagoelako: elkarteen komunikazioa erraztea.

Beste jende batengana heltzeko aukeraz hitz egiten dugu, eta geure burua ezagutarazteaz, baina hau ez da publizitatea; guretzat interesgarria izan daiteke nola egin eskura errazagoak gure zerbitzuak, baina ez gara salmenta departamentua; elkarteetan eraginkorrak, eragingarriak edo ondo prestatuak izan gaitezke, baina ez gara exekutiboak. Hemen ez du denak balio.

Helburuek, printzipioek eta metodoek bat etorri behar dute gure jarduerekin. Helburuak ez ditu bitartekoak justifikatzen eta, dena dela, gure helburuek aintzat hartu behar dituzte aniztasuna, kultura eta etnia desberdinek dakarten aberastasuna, gizarteko talde desberdinei zor zaien errespetua eta eskubide eta aukera berdintasuna; halaber, diskriminazioak ulertu behar ditugu erroretik kentzen saiatzeko. Horretan lan egiteko oinarritzko baliabidea komunikazioa da, eta gogoan izan behar dugu, edozelan ere, lehenengo eta behin jendea dagoela.

Honetan ez duenez inork egia, ipuin eta parabola hauek aurkezten dizkizuegu, arazo etiko hauei buruz denon artean eztabaidatu dezazuen.

## Kantitatea, kalitatea eta beste kontu batzuk...

### “Maila handiko jatetxea....”

Itxurakeriazko sasoi hauetan, sarritan garrantzitsuagoa dela dirudi aldi berean leku desberdin bitan egotea, horietariko batean zer gertatzen den ondo ikustea baino; eta giro horretan bizi da esate baterako Rosa izena izan dezakeen neskak. Bere adineko neska gehienentz handia du eta, aldi berean, gertatu ohi denez, oso desberdina ere bada beste guztien artean.

Rosak ideia onak zituenez, gustu oneko neska zenez eta trebea ere bazenez, sukaldaritzan sartu zen. Eta lapikoko edo pastel gozoak egiten ikasteaz gain, zerbait gehiago nahi zuen: helburua ez zen bere jatetxera hurbildutakoen sabelak betetzea, beste barik. Bere jatetxe txikia beti zegoen beteta, mahaia eskatzen zutenek bazekiten Rosak plater berri eta gozoren bat eskainiko ziela beren zentzumenen gozamenarako.

Arazo bat baino ez zegoen: Rosak ez zekien (txarto pentsatzen duten pertsonen ez zuela nahi esaten dute) bere jakintza konpartitzen. Jatetxea bete egiten zen eta Rosak ez zituen bezeroak galdu nahi eta urtero-urtero mahai gehiago jartzen zituen. Gauzak errepikatzen hasi zen, hainbeste jateko prestatu behar zituenez eta hain azkar prestatu behar zituenez, apenas zeukan denborarik gauza berriak asmatzeko eta are gutxiago bertan jaten zuten pertsonekin hitz egiteko.



Zerbait bereziren bila joaten zirenek utzi egin zioten joateari eta apurka-apurka bitaminei baino begiratzen ez zieten eta arin baten jaten zuten exekutibo erasokorrez bete zen jatetxea.

Orain Rosak hiriko jatetxerik jendetsuenetarikoa, umore eskasenetarikoa eta poltsikorik beteenetarikoak ditu. Jateko azkarra ematen du, eta ez Rosak ez bertara doazenek ez dute jatekoarekin gozaten.

### Gu geu izan

**B**aten batek esan zion esparragoari zipresa besteko altua izan zitekeela.

Esparragoak sinetsi egin zuen, eta asko hazi zen, baina hain latz eta gogor jarri zenez, jan ezina bilakatu zen; dena dela, sekula ez zuen zipresaren altueraren ehunena ere lortu.

### Ideiak ezin dira ez saldu ez erosi

**M**eliton konturatu zen hitz magiko bat esanez hegaz egin zezakeela eta patentatzera joan zen, erabili nahi zuenak zerga bat ordain ziezaion. Ordurik aurrera, jendeak hegaz egiten du, eta Meliton lurrarean dago zor diotena noiz ordainduko dioten zain.

### Gure printzipioak aurkitzea eta horien arabera jokatzeko koherentziara hurbiltzea da.

#### Printzesen ipuin bat orain...

**U**rrutiko herrialde batean Alai izeneko neskatxa bat bizi zen. Eta benetan ere izena bat zetorren izanarekin. Eskuzabala eta atsegina zen, eta herrikideek ere eskuzabaltasunez eta modu atseginean tratatzen zuten Alai; itxura batean ez zegoen munduan alaitasun hori alda zezakeen ezer.

Baina txori beltz bat leihora iritsi zen eta bertan geratu zen bizitzen. Behin pikua ireki eta ahots erlastuz bota zion: *“neska ona zara, etxe ziztrin honetan bizitzea eta trapu zahar horiek janzteia baino zerbait hobea merezi duzu”*. Alai ilundu egin zen apur bat, ordura arte bere etxetxo txiki eta zuria eder-ederra iruditzen baitzitzaion eta bere arropa zaindu eta garbiak harro egoteko modukoak baitziren berarentzat. Egunero-egunero, txoriak bere laudorio bitxiak botatzen zizkion: *“gorputz ona duzu eta polita zara, penagarria da azala hain lastuta izatea”, “denbora asko ematen duzu besteei begiratzen eta ahaztu egiten duzu zeure burua ispiluan begiratzen”, “leku ziztrin hau ez da egokia bere talentuarekin diru asko eta asko irabaz dezakeen batentzat”*.

Neska gaztea bere bizitzan zerbait ez zebilela ondo pentsatzen hasi zen, frustrazio eta porrot sentazioa nagusitu zen beraren-

gan. Lehen dibertigarria iruditzen zitzaiona orain distira eta gaztik gabekoa zela iruditzen zitzaion. Lehen egiten zuena egiteari utzi zion, txoriak konbentzitu egin zuelako bizitza hobea merezi zuela. Bizitzak zer ekarriko itxaroten jesarri zen.

–“Begira zer naizen orain, esan zion txoriari; heldu zinenean neska alai eta osasuntsua nintzen, pozik nengoen nire bizitzarekin eta jendeak maite ninduen; esadazu zer merezi dudan, orain daukadana ez baita lehen neukana baino hobea”.

–“Printzesa izatea merezi duzu”, esan zion beleak begietara begiratu.

–“Eta zer da printzesa izatea?, azaltzen badidazu, beharbada itxura batean nire destinoak agintzen duena izaten ikas dezaket”, erantzun zion Alaik.

Txoriak honela azaldu zion: “Printzesa gaztelu batean bizi den emakume ederra da, apaindu eta jantzen duten zerbitzariz inguratuta egoten da. Lorategietatik pasiatzen ateratzen da. Jateko asko eta gozoak ateratzen dizkiote, baina apenas jaten du ezer. Jendea makurtu egiten zaio eta berak bere esku fina luzatzen die. Bitxiz betetako kutzak ditu eta jantzetan urrezko bordatuak ditu. Dibertitzeko josi eta lautea jotzen du bere damekin”.

–“Beraz, ez du dantza, korrika edo saltorik egiten bere lagunekin? Ez da barrez lehertzen udako euripean? Ez diote zuzenean begietara begiratzen ez txantxarik egiten? Nola ibil daiteke

lupetz artean horrelako jantzi pisutsuekin? Paseoan ibiltzeko Jauregiko lorategiak bakarrik ditu?... Nik mundu osoa daukat! Menpekoak bakarrik ditu? Nik lagunak ditut! Irten zaitez nire etxetik txoritzar hori!”.

Alaik urrutiko lurralde hartako leku guztietan entzun zen barre-  
algara egin zuen, eta herritarrak pozik hurbildu zitzaizkion, berri-  
ro ere beren artean zutelako, eta are pozago joan ziren txori  
beltz hura erret jauregirantz hegaz ikusi zutenean.

**Ez baditugu denak aintzat hartzen,  
beti egongo da baten bat bakarrik.**

**T**opaketa bat antolatu nuen eta mendian egitea pentsatu nuen, alergiaz zutenak ez ziren etorri.

Bazkari bat egin nuen, eta okela-parrillada bat egitea ideia ona izan zitekeela pentsatu nuen. Begetarianoak gosez gelditu ziren.

Bikote dantzaldi bat antolatu nuen eta bikoterik ez zutenak aspertu egin ziren.

Lagun guztiak batu eta denon artean antolatu genuen jai bat. Dibertigarriena izan zen... eta ni askoz gutxiago nekatu nintzen.



# 5 laburpena



**Ezinezkoa da ez komunikatzea.** Beti transmititzen dugu zerbait, egiten dugunaren bidez, egiten ez dugunaren bidez, esaten dugunaren bidez edo isilik egonez. Hori onartzeak “arriskuak” dakartza. Arriskuetariko bat, gerta daitekeen arriskuetariko bat gainera, gure elkartearen barruan gauzak aldatu beharra izan daiteke. Guk geuk aldatu beharra izan dezakegu.

**Elkarteen komunikaziotzat ulertzen dugu...** jarduera (produktu, zerbitzu, ideia...) bat planifikatu eta egiteko prozesua, egiteko moduak topatzea eta jarduera horren zabalkundea bultzatzea, elkartearen helburuak eta elkartearen jardueren hartzaileak eurak aseko dituzten trukeak sortzeko, horrela, jardueren hartzaileak partaide bihurtuz.

**Komunikazioa dago TRUKEA dagoenean.** Ezinbestekoa da gure mezuei emandako erantzunak ebaluatzea eta erantzunen jarraipena egitea, gure informazioak gure jardueren hartzaileen ezaugarrietara egokitzeko.

**Identifikazioaren garrantzia.** Gure elkartearen zerbitzu, produktu eta jarduerak argi eta garbi identifikatu behar ditugu. Argi izan behar ditugu zeintzuk diren gure elkartearen ezaugarriak. Zer garen jakin behar dugu, zer transmititu jakiteko.

**Informazioa lortzen eta antolatzen ikasi.** Ezin diogu bizkarra eman errealitateari. Iturri desberdinetatik lortutako ikuspe-

gia behar dugu: Herri Administrazioak, azterketa eta ikerketak, gizarte komunikabideak, beste elkarte batzuk, gure jardueren hartzaileak... informazioa aukeratuz, aldian-aldian eguneratuz eta gure elkarteko ahalik eta kide gehienekin konpartituz.

**Zertarako nahi dugu komunikatu.** Geure interes eta beharizanetan oinarritu behar dugu, baina kontuan izanik gure komunikazioaren hartzaile nagusiak ez direla zertan bat etorri gurekin. Gure interesak jendearen interesetara hurbildu behar ditugu, erakunde "irekia" izateko. Baliabide eta formulak aurkitu behar ditugu gure elkarteak herritarrek zer eskatzen duten jakin dezan.

**Nori kontatzen diogu.** Atalak egin behar ditugu, mezu guztiek ez baitute balio gizarteko sektore guztietarako. Hizketakide desberdinak ditugu, eta hizketakide horiek ezagutzea eta gure informazioa euren ezaugarrietara egokitzea oso-oso garrantzitsua da komunikazio ona izan dadin. Sustatzaileek, hartzaileek, laguntzen dutenek, zuzitzen dutenek eta zabalkundea egiten dutenek informazioaren tratamendu desberdinak behar dituzte.

**"Baliabide" guztiak erabiltzea.** Gizarte komunikabideak oso garrantzitsuak dira gure gizartean; horiei esker gure mezuak hainbat lagunen artera zabal daitezke eta gure lurraldean ezaugarazi daitezke. Prentsa oharrak egitea, irratiko programetan parte hartzea, komunikabideetan agertzea eta, beharko balitz,

norbere espazioak sortzea, oso garrantzitsua da elkarteen komunikaziorako.

**Irudiak, euskarriak, estiloa eta hizkuntza.** Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du (batzuetan), baldin eta garena eta nahi duguna islatzen badute, baina, horretarako, behar-beharrezkoa da komunikazioaren helburuarekin bat etorriko den euskarri (foiletoak, kartelak, etab.) egokia erabiltzea. Gure mezuek erakundearen estiloari erantzun behar diote, bat etorri behar dute garenarekin, eta, beraz, oso garrantzitsua da hizkuntzan arreta jartzea, komunikazioaren gakoa baita.

**Baliabideak ezagutu eta erabili elkarteen komunikaziorako.** Aukera asko ditugu eta euskarri mota desberdinak: ahozkoa, grafikoa, idatzizkoa, ikus-entzunezkoak eta beste batzuk. Irizpideak ezarri behar ditugu komunikazioaren prozesurako ezarri dugun helburuen arabera.

**Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) garrantzia.** Internetek ematen dizkigun aukerak aprobetxatu behar ditugu, baliabide oso indartsua baita informaziorako, komunikaziorako eta gure inguruarekin elkarrekintza egokia izateko. Orain merkea eta erraza da gure mezuak sekula pentsatuko ez gunden lekuetara helaraztea.



# 6 bibliografía lotura interesgarria



## → Gehiago jakiteko:

### **DINÁMICA DE GRUPOS Y EDUCACIÓN.**

Cirigliano-Villaverde. Humanitas. Buenos Aires. 1982.

### **SACANDO JUGO AL JUEGO.**

Delgado, Fidel eta Del Campo, Patxi. Ed. Integral.

### **TECNICAS PARTICIPATIVAS PARA LA EDUCACIÓN POPULAR.**

Laura Vargas, Graciela Bustillos eta beste batzuk. Editorial Popular S.A. Madril. 1995.

### **EL TERCER SECTOR VISTO DESDE DENTRO: LA RENOVACIÓN DE LAS ONG'S Y LOS RETOS DE LA EXCLUSIÓN SOCIAL.**

ASKOREN ARTEAN (2002). Esplai fundazioa.

### **MARKETING ET COMMUNICATION DES ASSOCIATIONS.**

Jean Di Sciullo. Editions Juris-Service. 1990.

### **EL COMUNICADOR POPULAR.**

Mario Kaplún. Editorial Humanitas. Argentina. 1987.

### **COMUNICACIÓN PRACTICA.**

Franz R. Stuke, D. Zimmermann. Cuadernos de la Comunicación. Pablo del Rio Editor. 1978.

### **GLOBALIZACIÓN, NUEVAS TECNOLOGÍAS Y COMUNICACIÓN.**

Víctor M. Marí Sáez. Ediciones de la Torre. 1999.

→ **Lotura interesgarriak:**

INTERNET ELKARTEENTZAT:  
<http://www.redasociativa.org>

ÓPERA PRIMA FUNDAZIOA:  
<http://www.neuronilla.com>

GIZARTE MARKETINGA. Daniel Mendive:  
<http://www.comunidar.org.ar/mkt.htm>

MARKETINGA:  
<http://www.marketingdirecto.com> y <http://www.winred.com>

**Eskerrak:**

Eskerrak eman nahi dizkiegu CRACeko guztiei, eskaini diguten konfiantza eta laguntzagatik. Fernando de la Rivari, emandako jarraibideengatik eta bere pazientziarengatik. Sevillako "caló"ri, gure neuronak dantzan jartzearen. Eta Malúri, egoera eraman-garriagoa egiteko ekarri zizkigun freskagarritxoengatik.

→ **Bilduma honetako:**

**1. alea: BATZARRAK**

Nola amaitu behin betiko batzar gogaikarrieekin.  
*Fernando de la Riva, Pablo Solo de Zaldívar*  
CRAC, 1999.

**2. alea: PROIEKTUAK**

Nola eraman zure ideiak praktikara, inguru-minguruan ibili gabe.  
*Carlos Paradas, Fernando de la Riva.*  
CRAC, 2000.

**3. alea: EKIPOAK**

Nola lan egin elakerrekin, errietan hasi gabe.  
*Cristina Bustos, Antonio Moreno*  
CRAC, 2000.

**4. alea: ELKARTE SAREAK**

Indarrak batu emaitzak gehitzeko.  
*Fernando de la Riva, Antonio Moreno*  
CRAC, 2002.

**5. alea: ELKARTEEN KOMUNIKAZIOA**

Hitz egitea ez da elakarri aditzeko modu bakarra.  
*Lita Gómez Terrón, Antonio Moreno.* CRAC.  
EDEX, 2003.

**6. alea: ELKARTEETAKO LIDERRAK**

Edo nola agundu esana eginez.  
*Lita Gómez, Francisca Casado.* CRAC.  
EDEX, 2004.

KOADERNO PRAKTIKOAK material erraz, praktiko eta baliagarrien bilduma bat dira, elkarte eta gizarte-taldeen bizitzaren alderdi zehatz eta gai ezberdinetan arreta jartzen dutenak eta beraien funtzionamendu antolatzailea eta gizarte ekintza hobetzen laguntzeko tresna gisa eginda daude.

Koaderno Praktiko hau, elkartearen komunikazioaz arduratzen da, hau da, elkartearen ematen duen irudia eta inguruarekin duen harremana jorratzen du, elkartearen ekintza eta proiektuen zabalkundea aztertzen du, eta hori, eta hori guztiori prozesu parte-hartzaile gisa ulertuta, elkartearen helburuei eta elkartearen jardueren hartzzaile direnen helburuei behar bezala erantzuteko.

